



DONEZTEBE ETA LESAKAKO FERIAK

Ganaduen salerosketa indarra galtzen ari da

Udazkeneko ferien artean, Elizondokoen ondotik Doneztebe eta Lesakakoek hartuko dute txanda. Donezteben tradizioak markatzen duen egunean izanen dira aurten, San Martin ondoko ortziralean. Lesakan hemendik bi astera, azaroaren 29 eta 30ean.

Halere, feria kontuan gauzak aldatzen ari dira poliki-poliki. Urtetik urtera gero eta azinda gutiago ikusten da, eta hauen ordeztu gero eta gehiago dira urrundik etortzen diren saltzaileak, batez

ere arropa, oinetako eta txutxeriz kargatuak. Iduri du baserriak eta bertakoak diren produktu eta saltzaileek kanpokoei utzi dietela Feriek izan ohi duten alde komertziala. Hala ere, ferietan dena ez da salerosketa izaten. Egun-pasa ateratzeko aitzaki ederra ere badira. Donezteben Nafarroako Aikolari Txapelketa Nagusi-

Kasik ez da ikusten bertako produktu eta saltzailerik. Feri egunetan, generalean, urrundik etorritako saltzaileek dira gehien mugitzen direnak.

ko finala jokatuko da arratsaldeko 5,30etan, eta Lesakan, pilota partiduak izanen dira feri egunean, ortzegunean.

 **Gehigarrian**



3 Narziso Baleztena:
"Aurten 20 edo 30 kilo onddo bildu ditugu kongelatzeko"

Aurtiztar honen etxean ez da ondorik faltako heldu den urtean ere. Udazken honetan aski eguraldi ona egin du, eta onddozaileek kilo ugari bildu dituzte.

4-5 Erreportaia:
Udazkeneko errezetak
Eskualdeko lau sukaldari desberdinek emanik, ehizak ematen dituen jakiekin prestatzeko errezeta bana.



Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



1. urtemugako oferta
%40ko deskontuak
koltxoietan

Larunbat arratsaldetan irekia

Bera.

- Etxe bat berritzeko.
- 85 m²ko pisu bat salgai, bizitzeko jar-
tzeko prest.
- Apartamentua salgai, berri-berria.
- Eztegar pasealekuan 40 m²ko baje-
ra salgai.

- Baserria salgai, bere terreno guzietan.
- 1.300 m²ko nabe-pabiloia salgai.

Lesaka.

- Etxe elkar-atxikiak, egiten hasiak direnak, azken biak.
- Nabe-pabiloia, 400 m²koa, salgai edo errentan.
- Bajera salgai Erosle ondoan.
- Baserri bat 50.000 m²ko lur eremuarekin salgai, lau etxebizitza egiteko modukoa.

Etxalar.

- Harritzko etxea salgai, terrenoarekin.
- Baserri moldatua.
- Etxe berria salgai, lur-eremuarekin, bizitzeko jartzeko prest.
- Borda bat lur-eremuarekin.

Arantza.

- Pisu salgai. 7,5 milioi.

Igantzi.

- Baserria salgai, lur-eremu zabalarekin edo gabe.

Sunbilla.

- 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.
- Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
- Lur-eremu eraikigarria salgai, herrian, 1.200 m².

Doneztebe.

- Bajera salgai, 60 m², erabat prestatua, Elgorriaga aldera.
- Donamariako bidean, errepide ondoan, azken bajera, 100 m².
- 3.000 m²ko bi lur-eremu polit, eraikigarriak.
- Bajera batzuk salgai herrian bertan.
- Bajera batzuk errentan emateko.
- Frontoi zaharraren ondoan 200 m²ko bajera salgai.
- Aparan: 75 m²ko nabe-pabiloia salgai, aukeran.
- Aparan: 300 m²ko nabe-pabiloia errentan emateko, zatigarrria, aukera galanta.



A D O S

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948 451 841 • 607.978 656 • e-mail: julian@ados.com

Parrokia 9, bajeran • **DONEZTEBE**

- Aparan: 200 m²ko nabe-pabiloia errentan emateko, merke.
- Pisu pare bat salgai, herrian bertan.
- Bi pisu berri salgai, bizitzeko jartzeko prest. Zoragarriak.
- Elizagibela karrikan eginen diren azken bi pisu berriak salgai. Egin ezazu erreserba.
- Udaletxe ondoan azken pisua, 170 m²koa.

Elgorriaga.

- Pisu bajera haundi batekin, arras rustikoa.
- Lur-eremu eraikigarria.

Ituren.

- Borda prestatua, ura, argia, ailegabidea.
- Lur-eremuak salgai, landetan, eraikigarriak.

Zubieta.

- Etxe haundi bat salgai.
- Lur-eremu bat dohainik emanen da bajera baten truke.

Eratsun.

- Baserria salgai, lur-eremuarekin.
- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk salgai.

Donamaria.

- Lur-zati eraikigarriak, 300 m²tik goiti.
- Baserria salgai, lur-eremu batekin.
- Borda bat errentan emateko.

Igurin.

- Lur-eremu pare salgai, eraikigarriak. Merke.

Gaztelu.

- Lur-eremu eraikigarria salgai, 3.000 m²koa.

Urrotz.

- Baserri berritua lur-eremuarekin.

Beintza.

- Lur-eremuak. Herritik hurbil.

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Etxe, komertzio, auto, bizitza edota
jubilazio aseguruak. ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE

- Etxea salgai, baratze ttiki batekin.

Labaien.

- Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.

Legasa.

- Lur-eremua salgai, eraikigarria.
- Pisu pare salgai, merke-merke. 7 milioitik goiti.
- Elkar-atxikiak eginen diren etxea salgai. Azkena.

Mugairi.

- Pisu salgai.
- Lur-eremu eraikigarriak salgai.
- Egiten ari diren pisuak salgai.

Irurita.

- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko, 3.000 m², zelaia.
- 7.000 m²ko belagia salgai.
- Etxe berria salgai.

Elizondo.

- Pisu polit bat Santiago karrikan. 120 m², hiru aldetara ematen du.

- Pisu salgai, ia berria, 90 m²ko.

Erratzu.

- Etxe bat bizitzeko jartzeko prest.
- Apartamentu duplex-a, erabat hornitua.

Otxondo.

- Baserria salgai.

Arizkun.

- Lur-eremu eraikigarria salgai.

Baztan-Bidasoa.

- Eskatera handiagatik, pisuak, baserriak, etxeak, lur-eremuak, errota... behar ditugu.

DATUAK.....

❖ Onddo biltzaile amorratua izandua da Narziso, naiz eta orain gerriko minak hainbertze ibiltzen uzten ez dion. Hala ere erreleboa segurtatua du etxean.

❖ Ituren eta Zubietako mugan dagoen Pizarreneko bordakoa da sortzez. Azken urteotan, ordea, Eguzkialdean bizi da, Aurtitzen.

❖ Aurtengo udazkena arras ona izan omen da onddoetarako, Narzisok dioenez "euri ona egin duelakoz."

❖ Ibiltzekotan pago eta haritzetan ibiltzea nahiago du, «pinuditan zuri xamarrak izaten dira onddoak, eta ez zaizkit gustatzen». Xixak ere ez ditu biltzen, ezagutu, ezagutzen dituen arren.

✎ **Narziso BALEZTENA** *Aurtitz*

"Aurten 20 edo 30 kilo onddo bildu ditugu kongelatzeko"

ZU BETIDANIK FUERTE IBILI ZARA ONDDO BILTZEN. NOIZTIK HELDU ZAIZU AFIZIOA?

Neri mutil-koxkorra nintzenetikan. Gaztetan-eta aunitz ibili naiz, orain berriki arteraino. Orain gutti xamar ibiltzen naiz, zeren malda hoietan ibiliz gero gerriatik mina izaten dut gero. Halere xelaietan ibiltzen naiz oraindik.

ZEINEK ERAKUTSI ZIZUN ONDDO BILTZEN?

Aitak erakutsi zidan. Ni baserrian sortua naiz eta han inguruan izaten ziren onddo aunitz.

AURTENGO UDAZKENA ASKI ONA IZAN OMEN DA ONDDOETARAKO.

Bai, ni ez naiz ibili, baina etxeak bai. Jendeak onddo aunitz bildu du aurten Iturenen eta goiko mendi hoietan. Aurten euri ona egin du eta horregatik atera da onddoa.

BADAKIZU ETXETARAKO ZENBAT KILO BILDU DITUZTEN?

Bueno, alabak lanean ari dira orain, baina halere larunbat eta igandetan kilo saila bildu dute. Denen artean 20 edo 30 kilo bildu ditugu kongelatzeko.

ZUK ZER NAHIAGO DUZU ONDDO BILTZEKO, PAGADIA, HARIZTIA, PINUDIA...

Nik pagadia eta haritz, pinudian ez naiz



«Nik beti hutsikan jaten dut onddoa, arraultzeekin ez zait hainbertze sartzen».

ibiltzen. Zuri xamarrak izaten dira onddoak eta ez zaizkit gustatzen. Xixak ere ez ditut biltzen, ezagutzen ditut baina onddoa nahiago dut. Batzuei xixa gustatzen zaio eta nik, berriz, onddoa ikaragarri gustatzen zait.

NOLA PRESTATZEN DU-

ZU JATEKO?

Nik beti hutsikan jaten dut onddoa, tortilan ez zait hainbertze sartzen. Haragi puska bat baldin badu laguntzeko, ederki.

ZER BEHAR DA ONDDO-BILTZAILE ONA IZATEKO?

Ona izateko ibili egin behar da azkarki, bada-kizu, goiz xamar joan eta ibili... goizetan aisago harrapatzen da onddoa. Berandu joanez gero bertze zazpi-zortzi lagun ibili zaizkizu lehenagotik. Ni ibiltzen

nintzenean argitu orduko joaten nintzen, argitu esperoan egoten nintzen goi horretan.

ZURE USTEZ AZKEN URTEOTAN JENDE SOBERA IBILKI DA HEMENGO MENDI HAUTAN ONDDO BILA?

Aurten denentzat pixko bat atera da, baina joan den urtean gutti atera baitzen... jendea pilaka etortzen da orain. Gipuzkoatik, Iparraldetik eta toki guzietatik etortzen da jendea orain, azkarki gainera. ■

► *"Aurten denentzat pixko bat atera da onddoa, baina iaz gutti atera baitzen... jendea pilaka etortzen da orain. Gipuzkoatik, iparraldetik... toki guzietatik."*



Urte sasoi bako

Udazkenean ehizarekin lotuak dauden jakiak aparteko indarra hartzen dute, generalean, jatetxetako menuetan. Eta idea bat egiteko, lau errezeta eskatu ditugu norberak, aukera izanez gero, etxean saiakera egiteko. Eta azken emaitzarekin bide segurutik jo nahi duenak, jatetxetako menuetan eskaintza ederra du sasioan sasoikoa probatzeko. On dagizuela.

TESTUA: JOXE IRIGOIEN



M^a Josefa Arretxea
Amezti - Doneztebe

Basurdea

-  **ERRAXA**
-  **PRESTATZEN:** Ordu erdi bat
-  **EGITEN:** 2 ordu
-  **ZENBATENDAKO:** 4 lagunendako

• 1,5 K. basurde haragi • 2 tipul buru • 3 baratxuri ale • 6 azenario • sagar bat • 2-3 tomate • 0,5 litro ardo beltz • starlux • olio • gatza • ura • ozpina

1 Lehen-lehenik haragia ur-ozpinetan utzi behar da garbitzen (2-3 ordu).

2 Tipula xehetu eta kazula batean jarri olioarekin egiten, eta segidan azenarioak, baratxuriak eta haragi puskak bota. Utzi egiten, eta haragiak kolorea hartu duenean, ardoa bota gainetik.

3 Gero su-golpea eman ardoaren alkohola erretzeko. Alkohola erre denean, nahasi eta utzi gozatzen. Sagar puskak bota, eta segidan, ura ere botako dugu, haragi puskak ongi tapatuak gelditu arte. Gatza eta starluxa.

4 Utzi egosten ezteki-eztiki haragiari kasu eginez ordu terdiz. Nahi izanez gero, patata puskak eta txapinoiak ere botatzen ahal zaio platera osatzeko.

Jean Battite Fagoaga
Baratzartea - Sara

Usoa arno saltsan



-  **ERRAXA**
-  **PRESTATZEN:** Oren bat usoak bipiltzen
-  **EGITEN:** Oren bat eta laurden
-  **ZENBATENDAKO:** 6 lagunendako

• 6 uso • 2 tipul buru • baratxuri buru bat • 150 g. xingar (xehe-xehe egina) • pinta bat arno • xarpota eta erramu hostoa • perrexila • baso ttipi bat koñak • piper-hauts gorria • irina • olio • gatza • ura (behar baldin bada)

1 Usoak garbitu eta erditik pikatu. Gatza eta piper gorria eman eta olio bero-beroan pasatu kazola batean. Usoak oliotik kendu, eta kazola berean tipula xehetua, baratxuria eta xingarra prestatu.

2 Usoak berriz kazolara sartu eta berotu. Koñaka eman eta su golpe batekin berotu alkohola erretzeko. Su hortan usoak nahasi eta koñaka errea delarik, aitzinetik bertze kazola batean erre dugun arnoa ere emanen diogu gainetik. Ongi nahasi dena.

3 Ondotik xarpota, perrexila, gatza eta piperra bota eta utzi egosten 3 oren-laurdenez. Halere, ordu erdia pasatu denean, dasta, eta behar baldin badu, eman baso erdi bat ur.

4 Plateran emateko, ogi xerra batzuk olioan pasatu gero usoaren bazterrean serbitzatzeko. Nahi duenak, sasioan dauden onddoekin ere laguntzen ahal du usoa.



oitzak bere jakiak ditu

Iñaki Pikabea
Zalain - Bera

Eperrak Xerez ardoarekin



ERDI MAILAKOA



PRESTATZEN: Bi ordu



EGITEN: Ordu bat



ZENBATENDAKO: 4 lagunendako

- 4 eper garbi • 2 tipul • 3 porru • 2 azenario • 2 baratxuri ale • 10 g. piper beltza osorik • ardo-ozpina 1/4 dl. • 2 dl. Xerez • tomate bat ondua • erregin sagar bat • litro bat haragi salda edo ura • gatza • piperra

1 Hasieran barazki guziak zatitan moztu eta olio berotan beratzen jarri poliki-poliki. Gero sagarra eta tomatea gehitu eta ongi potxatu arte utzi egiten.

2 Eperrei gatza eta piperra eman eta olio berotan ongi gorritu. Lehendik egin ditugun barazkiak gehituko diegu eperrei, eta ozpin eta Xerezarekin busti ondotik, erdira agortu arte utziko dugu sutan. Azkenik saldarekin busti eta egosten utzi.

3 Egosiak daudenean, eperrak ateri eta pure-egitekotik pasatuko dugu gelditzen den saltsa. Eperrak erditik zati-tu eta saltsa horretan jarri. Laguntzeko onddo batzuk; aza-gorria (lonbarda) ardo beltzetan egosia; ogi-xerrak oliotan prexituak...

Eva Azan
Hotel Mugaire - Oieregi

Oreina



ERRAXA



PRESTATZEN: Bezperatik haragia beratu



EGITEN: Bi ordu terdi



ZENBATENDAKO: 4 lagunendako

- 1,5 K. orein haragi • 6 baratxuri ale • porru bat • 3 azenario • sagar bat • ez kai adaxka bat (tomillo) • 3-4 patata • 2 litro ardo beltz • gatza • irina • oliba olio • haragi salda

1 Bezperatik haragia eta barazkiak zatitu eta ontzi batean jarri. Ezkai edo *tomillo* adaxka ere bota, eta ardoarekin estalita utziko dugu frigoan.

2 Haragia eta barazkiak ontzitik ateri eta berezita jarriko ditugu. Ardoa egosten jarri eta bidenabar, bertze ontzi batean barazkiak prexikutu ditugu. Prexituak daudenean purea egin eta iragazki edo txino batetik pasatuko dugu saltsa fin-fina gelditzeko. Bertzalde, zartagi batean orein haragi prexikutu dugu.

3 Tapa duen ontzi batean haragia, barazkiak eta ardo egosia sutan jarriko ditugu. Haragi salda pixka bat gehitu eta egosten utziko dugu su motelean ordu eta erdi edo bi orduz haragiaren arabera.

4 Patatak zatitu eta pixka bat prexitu. Haragia egiteko puntuan denean, patatak erantsiko dizkiogu, arras egin arte haragi eta patatak.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-

goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fer-

nandez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor,

Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Joseba

Olagarai, Nerea Mitxelorena,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mankomunitatea, Zugarra-

murdiako Akelarre Elkartea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

IRAKURLEAK MINTZO

Elgarrekin eraiki dezagun Xiberoko Botza!

Xiberoko Botzak, azken dei zabal bategiten du euskal gizarte osoari, behin betikotz bere lan tresnaren jabe izateko.

Joan den martxoan, Xiberoko Botzak kanpaina zabal bat hasten zuen Euskal Herri osoan, egoitza berri baten eraikitzeak asmoarekin. Esparru handiago bat erabiliz, nahi ditu lan baldintzak hobetu, irratitresneria egokitu eta publikoari bere ateak ideki. Xiberoko Botzak nahi ditu eskertu orai arte beren laguntza helarazi duten guztiak. Horier esker, xedearen lehen urratsa bete ahal izan da. Barneko aldaketalanak laster bukatuko dira eta Xiberoko Botza bere estudio berrietan sartzen ahalko da, abendoan.

Xedearen gakoak estúdio berezi baten eraikitzea da zointan emanaldiak zuzenean grabatzen ahalko diren. Programazio berri bat bidean jarri nahi da, eztabada publiko, musika emanaldi zuzenean eskeinitz. Honen burutzeko, ekipamendu berria erosi behar da eta biziki garestia da: 200.000 libera (5.000.000 pezeta). Behar beharrezkoa da irratitresneria berri horren lor-

tzea, hori beit da Xiberoko Botzaren eguneroko lan tresna.

Hortako, Xiberoko Botzak azken dei bat egiten du euskal gizarteari, zozial, kultur, ekonomia arloko jendeari. Xede honekin da euskarazko irratia geroa gaur jokatzen. Denek elgarrekin eraiki dezagun Xiberoko Botza!

Abendu bukaeran da Xiberoko eraikbeza botza kanpaina amaituko. Helburua: 1000 laguntzaile 200 liberetan (5.000 pezeta).

Abenduaren 9an, Sohütan, azken kontzertua, honako egitarau honekin:

- Ikus (rock Iparralde)
- Piarres (rock Iparralde)
- Selektah Kolektiboa (euskal rap)
- Amparanoia (Madrile, latino rock)

XIBEROKO BOTZA



Zakurren pressing-a kantxa guzian

Horixe agindu die, dirudienez, entrenatzaileak. Berako eltzetuek ez dute partiduen minutu ba-

tean ere atsedenik hartzen, baino ematen du partidu honek ez duela bukaerarik.

Azken boladan zaila da Berako edozein karriketan 10 minutuz jarrita egon eta patrol berderik ez ikustea, gehiago oraindik arratseko 11 etatik aitzinera. Ordu horretan oinez, bizikletan edo kotxez ibilki dena susmagarri garbia da beraiantzat. Tristeia da, baina jendea ohitzen ari da edozein ordutan kontroletan gelditu eta paperak erakustera, kotxeak eskin guztiak erregistratzen ikustera eta galdera ergelak erantzun behar izatera.

Estrategia hau ez da berria, bainan beti dago al daketa tikiren bat edo bertz. Orain gazte eta ez horren gazteei isunak jartzeko agindu garbia dute, batez ere pertsona hori beraiantzat susmagarri diren hoiaren barrenean sartzen bada edo bertzetik gabe nola begiratzen dien gustatzen ez bazaie. Gazteen sakela izorratzea bertz helbururik ez duen estrategia hau beraiek ere aitortu dute kontrolen batean mehatxu gisa.

Adibide gisa: herriko gazte bateri isuna jarri zioten gerrikoak ez jartzeagatik nahiz eta jarrita eraman. Honek harriturik gerrikoak zeramala erran zienean

berdin zitzaiea erantzun zioten, eta gelditzen zuten aldiro isuna jarriko ziotela abisatu.

Irri egiteko modukoak diren hainbat multa ere jarri dituzte: kotxean izozki bat jateagatik, "por ir comiendo un helado tipo conete" hain zuzen. Bizikletarekin derrapatzeagatik bertz bati (bera gelditzera kontrako direkzioan etorri zirela erantzun zienean erreflektorea eta kaskoa ez eramateagatik multa bikoiztu egin zioten...). Egun batean gaizki aparkatzeagatik multa jarri eta kotxearen jabeari hurrengo astean entregatu... hamaika horrelako. Eta hoiak irri egiteko modukoak baldin badira (nahiz eta ordaindu behar duenari grazia pizarrik ez egin), larriagoak dira zenbait gazterei egindako mehatxuak eta pertsekuzioak.

Horren kontra gauza handirik ezin dugu egin (edo bai), baino bederen ez da dila lagunarteko komentario bezala gelditu eta jende guztiak jakin dezala zertarako dagoen hemen jendaje hau, baita horrelakotan ezikusiarrena egiten duten herritarrek ere.

Martxa hemendik!

KALTETUETAKO BAT.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias 00ko azaroak 7

«Lan bat enkargatzen diguten bakoitzean, epeak betetzea eta emaitzaren kalitatea ezin ditudala segurtatu abisatzen dut, tailerra gutxituei eskulanak erakusteko eta egunaren zati bat okupatzeko baita batez ere. Eskurtsioa baldin badugu martxa egiten dugu, lana egiteko baldin badago ere».

Pablo FEO
Leitzako Okile tailerreko
arduraduna
Diario de Noticias 00-11-07

«Hitz majikoa pazientzia da. Pilotari belaunaldi ederra daukagu, hemendik hiru urtera joku aunitz ematen ahal duena, baina pazientzia izan behar da. Hor gaudenetatik, non geunden hogeitaz urterekin? Noiz jokatu genuen lehen finala? Adibiderik onena Julian Retegi da, 25 urte arte ez baitzuen lehendabiziko txapela irabazi. Jendeari egiten utzi behar zaio».

Inaxio ERRANDONEA
Alkaigako pilotaria
Diario de Navarra 00-11-10

◆ **Dantzari, antzezle, musikari... artistatzat duk hire burua ?**

❖ Ez, artista deitzea soberaxko izanen da, kultur gaietan interesatua bertzerik ez.

◆ **Antzerkian hasi hintzenean, espero huen Bilboko Kafe Antzokira ailegatzea?**

❖ Ez, inork ez genuen espero. Sorpresa izan da denontzat.

◆ **Hurrengo pausua, Hollywoodera...**

❖ Ikusiko dugu eskaintzak nolakoak diren...

◆ **Eta dantzan hasi hintzenean, espero huen Sanfermin eguneko aureskua dantzatzea?**

❖ Tikitan hasi nintzen dantzan eta orduan ez dituzu honelako gauzak pentsatzen.

◆ **Zer sentitu huen aurtengoan, lehen aldiz dantzatu hukenean?**

❖ Dantzatzerakoan ez nuen deus berezirik sentitu, baina aitzinetik banuen urduritasun eta emozio berezi bat.

◆ **Nola sentitzen duk gehiago aureskua, dantzan edo txistuarekin jotzen?**

❖ Aureskua dantzatzea gehiago gustatzen zait, protagonistagoa zara.

◆ **Antzezle, dantzari eta musikari baten izena galdetuz gero?**

❖ Antzezlea, Harvey Keitel. Dantzaria, aureskua dantzatzen ikusi ditudanen artean, Jabier Fagoaga eta musikariak, milaka ditut gustoko.

◆ **Tantirumairu dantza taldekoekin, noraino ailegatu haiz?**

❖ Britainiaraino ailegatu gara eta dantza gustatzen zaion jende aunitz biltzen den edozein lekura joanen ginatke gustora.

◆ **Zer nahiago, musika konposatzea, jotzea ela irakastea?**

❖ Jotzen denaren eta ikaslearen arabera, jotzea eta erakustea errexka da. Zailena konposatzea dela iruditzen zait.

◆ **Feria eguna gainean dugu... Musika alde batera uzten duk?**

❖ Jo ez dugu egiten... Trikitilarien eta ostatuko musikarekin gozatu.

◆ **Feria egun horretarako planik onena?**

❖ Eguerdian ateri, giroa ikusi, lagunekin bazkaldu eta hortik aitzinera...

**Gaizka SARASOLA**

Musikari eta antzezlea
LESAKA

**zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.**

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516



ZALAIN
JATETXEA

EGUNERO ALFAROA ETA KALITA

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



© 948631076 • BERA



Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 948630735
Irun © 943622305

SALEZONES UDANA, S. L.



Importaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaigara ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • **LESAKA** • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

BEXUEN



25 metro goratzen den garabia
Kabrestantea urutiko agintarekin

Tel: 670 974025 • 667 418661

KULTURA

Zirimolan kultur hamabortzaldiak familia eredu ezberdinak hartuko ditu xedetzat

Azkaine, Bera, Etxalar eta Sarako elkarteak bildu dira aurten ere antolaketan

TTIPI-TTAPA

Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxea elkar- teek antolatuta Zirimolan kultur hamabortzal- dia burutuko da azaro- aren 21etik abenduaren 3ra. Joan den urtean «Etxeak eta bizitzak» gai izan zuten aztergai eta aurtengoan etxe bar- nerat sartu dira, «Fami- lia, biziaren bidean» izan baita hautatutako gaia.

Lehenbiziko ekital- dia Saran gauzatuko da azaroaren 21ean, aste- artearekin. Arratseko 8,30etatik aitzin Herriko Etxean «Lana eta fami- lia» gaiari buruzko ma- haingurua egingen da. Peio Iralur Euskal Labo- rarien Batasuneko ki- dea, Marta Agirrezabala Gipuzkoako EHNEko idazkaria, Jane Kreckel- bergh «Emazteak dio- te» taldeko lehendaka- ria eta Eraikizaneke ki- dea, Maider Jauregiberri Familiaren Sindikatu Konfederazioko partai- dea eta Esteban Olaizola Gipuzkoako Kofradien



Etxalarko Altxata, Azkaineko Altxa Lili, Berako Gure Txokoa eta Sarako Gaztetxea dira Zirimolan Kultur Hamabortzaldiaren antolatzaileak.

Artxibokoa

lehendakaria izanen di- ra solasean. Joxet Oxan- dabaratz izanen da so- lasaldiaren eramailea.

Azaroaren 23an, or- tzegunarekin, arratseko 8,30etan Azkaingo Biltokin «Sexu mitoak apurtzen» mintzaldia es- kainiko du Luis Elber- dinek. Azaroaren 24an, ortziralarekin, rock kon- zertuak izanen dira Berako Altxate karrika- ko ostatueta. Arratseko 9etan Marakooja talde-

ak joko du Zizkan, 10e- tan Inguma taldeak Bi- daxkan eta 11tan Sele- kta kolektiboak Puin.

Azaroaren 28an, as- teartea, «Familia, afek- titibitatea eta komunika- zioa» mintzaldia eskai- niko dute Izargain el- karteko Teresa Belasko eta Luis Marko psiko- logoek Etxalarko He- rriko Etxean, arratseko 8etatik aitzinera.

Azaroaren 30ean, or- tzeguna, Berako Iamo-

tenean «Gay eta lesbia- nak» mintzaldia eskai- niko dute arratseko 8eta- tik aitzinera Raul López EHGAMeko kidearen, David Lantheaume la- purtarraren eta emazte baten lekukotasunare- kin.

ZINEA, BERTSO-KANTU AFARIA ETA ANTZERKIA ABENDU HASIERAN

Abenduaren 1ean, ortzirala, arratseko 9eta- tik aitzinera, euskal zi-

ne eta bideo emanal- diekin zine arratsa osa- tuko da Etxalarko Herriko Etxean. Sartze- ko 500 pezeta edo 20 li- bera ordaindu beharko da.

Abenduaren 2an, la- runbatarekin, Sarako Lastiry jatetxean bertso kantu afaria izanen da arratseko 9etatik aitzin- era. Hegoalde nahiz Iparraldeko kantari eta bertsulari gazteak iza- nen dira afarian: Amets Arzallus, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta, Mirentxu Artetxe, Sustrai Kolina, Iñigo Olaetxea eta Estitxu Arozena. Afarirako txartelak 100 liberetan (2.500 pezeta) izanen dira salgai.

Zirimolan Kultur Hamabortzaldi hau aki- tzeko, abenduaren 3an, igandea, antzerkia iza- nen da arratsaldeko 4etatik aitzin Azkaineko kiroldegian. Hiru Puntu antzerki taldearen es- kutik, «Hotel du fron- ton» Antton Lukuk ida- tzitako antzezlanaren isus- teko modua izanen da. Sartzea 30 libera (750 pezeta) ordainduko da.

 **Rafa: 600 819 640**
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

 **Iriarte-Echandi, s.l.**
• Aholkularitza
• Artekariatza
• Aseguruak
Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

 **bortzirUDI**
BERA
FOTOKOPIAK, ENKALDUTUNAZKOAK, PAPERETUGIA, DISEÑU GRAFICOA, INBIENTA LANAK, SEÑALIZATIA, FAXA, E-SKALA, ANGAZKI MUNTAK, TITULATIA, ETEGARA 26 BEHEA, Tel.- Faxe: 948 63 15 21

Alberto
RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

Baranda berriak diseinatzeko lehiaketa antolatu du Udalak

Azaroaren 17an akautuko da proposamenak aurkezteko epea

ASIER GOGORTZA

Lehiaketa baten bi-dez aukeratuko da herri-
an barna (erreka bazte-
rretan, Eztegarra pasea-
lekuan eta bertze tokie-
tan) dauden baranden
diseinu berria. Proposa-
menak azaroaren 17a
baino lehenago aurkez-
tu beharko dira herriko
Etxeko idazkaritzan, be-
ti ere eguerdiko 13ak
baino lehen. Udalbatzak
dagoeneko onartu du
nork osatuko duen epai-
mahaia, tartean arte eta
diseinuan adituak, Uda-
leko ordezkariak, eta
kulturako arduraduna
egonen dira. Diseinurik
egokiena aurkeztzen due-
narentzat 200.000 pta-
ko saria izanen da.

Kontuan hartu behar-
ko da burni fundituan
eginen dela baranda, eta
antolatzaileek ahalik eta
pisu guttien izatea balo-
ratuko dute edertasuna-
rekin batera.

Taila eta eskultura ikastaroa

Herriko Etxeko Ba-
tzar Aretoan jarriko den
erretaula erraldoi bat
egitea izanen da Iosu
Goiak antolatu eta zu-
zenduko duen ikastaro
honen helburu nagusia.
Egurrezko erretaula ho-
rrek 6 metro zabal eta 2
metro luze izanen du,



barnean Berako arma-
rria eta bertze zenbait
apaindura izanen ditu,
erliebe ttikian tailatuak.
Horrez gain, bakoitzak
bere aldetik nahi duen
eskulturak egiteko as-
tia ere izanen du.

Azaroaren 18a bai-
no lehen eman beharko
da izena Herriko Etxeko
bulegoetan. Apuntatze-
ko 5.000 pezetako ma-
trikula ordaindu behar-
ko du gastu orokorrak
estaltzeko: lijak, zerrak,
taladroak... Gainerako
lan-tresnak norberak
eraman beharko ditu.

Ikastaroa hasi aitz-
inetik bilkura bat eginen
da egunak eta ordute-
gia zehazteko, bainan
aitzinetik jakina da la-
runbat edo igandeetan
izanen dela.

Lurraren Eguneko Sagardo eta Gasna lehiaketako sariak Alkaiagara joan ziren

Bortzirietako XIII. Gasna Lehiaketan Iñaki
Pikabea alkaiagarrarena izan zen 11 gasnaren ar-
tean hoberena, eta bigarren tokian Gorostipala
baserriko Esteban Errandonearen gasna jarri zuen
epaimahaia. Hirugarren tokian, berriz,
Joantzeneko Bordako Periko Telletxea eta
Garmendiko Bordako Sokorro Almandozen ar-
tean berdinketa izan zen eta saria erdibana egi-
tea erabaki zuten epaileek.

Bertzetik, Alkaiagako Soroa baserriko sgar-
doak eraman du aurten sagardo lehiaketako le-
hen saria, eta bigarrena, berriz, iazko irabazleak,
Txanburne baserrikoak, alegia. Denetara 18 bo-
tla desberdin aurkeztu ziren.

flash

Margo erakusketa

Lolita Sarratea eta
Maria Jesus Petrre-
naren olio eta graba-
tuak ikusgai egonen
dira azaroaren 17tik
abenduaren 3a bitar-
te. Arratsaldeko 6e-
tatik 8etara, Kultur
Etxean.

Soziolinguistika jardunaldiak

Azaroaren 17an eta
24an Bidasoa Iker-
keta Zentruak anto-
latzen duen Soziolin-
guistika Jardunaldi-
ak eginen dira Gure
Txokoan arratsalde-
ko 6,30etatik aitzine-
ra. Ortziral honetan
euskara eta lan mun-
duaren gaineko hit-
zaldia emanen da.
Enpresen euskaldun-
tzeari buruz ariko di-
ra, bertzeak bertze.
Hurrengo astean, be-
rriz, gai berdina har-
tuta mahaingurua
eginen dute sindika-
tuetak hainbat ki-
dek.

Kontzertua

Azaroaren 24an Ziri-
molan Kultur Hama-
bortzaldiko kontzer-
tua eginen da Altza-
teko ostatuetan. A-
rratseko 9etan Mara-
kooja reggae talde-
ak joko du Zizkan,
ondotik Sarako Ingu-
mak (Metal melodi-
koa) Bidaxkan, eta
azkenik Selektah
Kolektiboaren hip-
hop eta musika bel-
tzaren nahasketa izan-
en da entzungai
Puin.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Botxo
OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESKA

Diario de Navarra egunkarian udal iragarkiak sartzen segituko da

Herriaren izena errespetatzen ez duela salatu zuen EHk

AITOR AROTZENA

Diario de Navarra egunkarian publikizad-
erik ez sartzea eskatu
zuen EH taldeak urria-
ren 6ko batzarrean.
EHren ustez, «urteak di-
ra eremu euskalduneko
herrien izenak nola era-
bili onartu zela. Go-
bernuak Lesaka «K»z
idatzi behar zela era-
baki zuen, baina Diario
de Navarra egunkariak
oraindik Lesaka «C»z
idazten du, garbi utziz
errespetu falta ikara-
garria eta gure herria-
rekiko mespretxua». Jarrera aldatzen ez duen
bitartean egunkari ho-
rretan inolako udal ira-
garkirik ez jartzea es-
katu zuen EHk. Alka-
tearen ustez, mozio ho-
nek «arrazoi moral-
a izaten ahal du, Diario
de Navarrak Nafarroa-
ko Gobernuak dekretoz
hartutako neurri bat ez
duela betetzen ikusiri-
kan». Dena den, edo-
zein lehiaketa probin-
tziako tirada handiene-
ko bi egunkarietan ar-
gitartu behar dela kon-
tuan hartuz, «udala ad-
ministratzaio publikoa da
eta derrigorrez bete be-
har ditu lege batzuk»
adierazi zuen alkateak.

Orduan, zera galde-
tu zuen EHko zinego-
tziak: «Legeak behar-
tzen bagaitu egunkari



Iñaki Fagoaga atxilotu zutenetik zazpi urte bete dira

Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe atxilotu zutenetik zazpi urte bete di-
ra eta hori gogoratuz, Sastrinera mendi martxa egin zen azaroaren 4an.
Berrogeita hamar bat lagun abiatu ziren oinez plazatik eta bertze batzuk
autoan ere agertu ziren.

Argazkia: TTPI-TTAPA TB

horretan iragarkiak
agertzera, nola ez du
behartzen egunkari ho-
rretan izendegi ofizia-
la erabiltzera?». Alka-
teak, berriz, hona-
koa erantzun zuen:
«Diario de Navarrak
edo bertze edozein per-
tsona edo entitate pri-
batuak legetik kanpora
funtzionatzeak ez du lor-
tuko udal honen fun-
tzionamendua legetik
kanpo ateratzea».

Bertzalde, Jose Luis
Etxegarai izanen da udal
ordezkaria ANIMSA
erakundeak azaroaren
30ean egingen duen ez

ohiko batzarrean. EHk
Jose Luis Atorrasagasti
izatea proposatu zuen.

Ibilbide Luzeko Bidexkak

Nafarroako Ibilbide
Luzeko Bidexkak (GR)
hobetzeko eta molda-
tzeko planaren barnean
sartuko da Zirizatik
Aiako Harria bitarte do-
anbidea (GR-11). Nafa-
rroako Gobernuak
Ingurugiro Departamenduak eta Kirol eta
Gaztediaren Institutuak
prestatutako proiektuan,
kultura eta historia al-
detik interes gehien du-

ten bidexkak moldatu-
ko dira lehenik, eta ho-
rien artean dago 181 ki-
lometro eta 10 etapa
egin ondotik Aiako
Harria akautzen dena.
Lanaren aurrekontua 25
milioi pezetakoa da eta
2001. urteko abendua-
ren 31 baino lehen akau-
tu beharko da. Bertzeak
bertze, ibilbideak az-
tertu eta egin beharre-
ko moldaketen diseinua,
GPSan oinarritutako
kartografia argitaratzea
eta panelak eta infor-
mazio seinaleak egitea
sartzen da lan hauen bar-
nean.

flash

Oihanberritze lanak

Eskolamendi ingu-
ruan egin beharreko
oihanberritze lanak
enkantean atera ditu
Udalak. Proiektua
Mikel Goikoetxea ar-
kitektuak idatzi du
eta aurrekontua
29.618.880 pezeta-
koa da (BEZ barne)
eta proposamenak
azaroaren 27ko arra-
tsaldeko ordubata
baino lehen aurkez-
tu behar dira udal bu-
legoetan.

Arkupe Pilotazale Elkartek

Beheko Plazako
Txanpalenea etxean
duen egoitza erabil-
tzen segitu ahal izan-
du. 1985ko hil-
beltzaren 1ean ha-
mabortz urterako utzi
zitzaion egoitza el-
karteari. Abenduaren
31n, beraz, akautzen
zen kontratua, baina
Udalak egoitza hori
dohainik erabiltzen
segitzeko baimena
eman dio.

Airearen kutsaduraren neurketa

Herriko Etxean he-
rriko airearen kutsa-
dura neurtzeko apa-
ratu bat paratzea es-
katu dio Udalak aho-
batez Nafarroako
Gobernuko Inguru-
giro, Lurraldearen
Antolamendu eta
Etxebizitza Departamenduari. 1977an
egindako azken az-
terketan kutsadura
handia ageri zen.

LORE ETALAN
Lore eta landareak
© 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

XATUETXEA
Zakur
JATEIXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ANNA
jantaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

kiskun
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

Familia eta afektibitateari buruzko hitzaldia Zirimolan kultur egunetan

Filme emankizunak ere izanen dira abenduaren 1ean

JOSEBA ETA NEREA

Duela bi hilabete eskas Euskara Batzordeak kultur ikusgarri batzuk antolatu bazituen, oraingoan, Zirimolan-ek hartuko dio txanda. Lehenbiziko ekitaldia azaroaren 28an izanen da: *familia, afektibitatea eta komunikazioari buruzko* hitzaldia "Izargain" elkarteko Teresa Velasco eta Luis Marko psikologoek emanen dute, gaueko 8etan Herriko Etxean. Abenduaren 1ean, berriz, *zine arratsa* izanen da arratseko 9etan Herriko Etxean. Bertzeak bertze, "A dar bakar", "Yellow", "The last drink", "Lost-galduta" eta akautzeko "Zulo Beltza" proiektatuko dira. Hauek denak ikusteko 500 pezeta ordaindu beharko da. Eta azkenik, oroitarazi Sarako "Lastiry" jate-txean egingen den bertso-kantu afarira joan ahal izateko Elutsan 2.500 pezetatan daudela txartelak salgai. Hemendik, gonbitea luzatzen dugu, egitan me-rezi izanen duelakoz.



Irrati praktikak egin dituzte Landagain eskolan

Aurtengoan, azaroaren 6tik 10era aritu dira. Kontxexi Arangoa irakaslearen hitzetan irratsaio hauen helburu nagusia ahozko hizkuntza lantzea da, erabilera desberdinak emanez (berriak, ipuinak, errezetak, kantak, el-karrizketak...). Beti bezala, elkarrizketatu batzuk ere izan dituzte. Asteartean Pello Apeztearearen bisita izan zuten. Asteazkenean Castillo Suarez Bortzirietako hizkuntz teknikaria bertako euskararen egoeraz solastu zen. Ortzegunean, berriz, Jose Manuel Irigoienek TTPI-TTAPA TELEBISTAREN berri eman zuen. Akautzeko, ortziralean Altxata kultur elkarteko kide batek Usategietako igandearen antolakuntzaz azalpenak eman zituen. Horrela, goizeko 11'30etatik 13'00ak arte entzungai egon ziren saio honi bukaera eman zioten Etxalarko haurrek.

Personaiak

Denboraldi baterako irakaslea

Denbora guttiz bada ere Landagain eskolako haurrek irakasle berria izanen dute: Itziar Etxarte. Majisteritza ikasten ari den 19 urteko neska gazte hau 26 egunez ariko da praktikatan Etxalarko eskolan: azaroaren 27tik abenduaren 22rarte. Euskal Herriko Unibertsitatean ari da bere karreraren bigarren urtea egiten eta han eskatzen dizkioten praktikak direla medio sartu da Landagainen. Berak Igantzin eta Beran ere eskatu zuen baina bere herrian bertan hartzeko aukera izan du. Seguru irakasle bikaina izanen dela!



Itziar Etxarte

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

IRU BIDE
ERRATEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 948635290 ETXALAR
3.500 pezeta

UDAZKENEKO MENU BEREZIA

- Ehiza fianbre sorta
- Onddo nahaskia
- Aza pastela odolkitz beteak bertako ilarren saltsa eta pikilo-piperrekin
- Usoa Etxalarko era zaharrean, galeper arraultzarekin
- Gazta eta arandano tarta
- Errioxako etxeko ardo botila

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

Ioredenda
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

IGANTZI

Abesbatzak antolatutako kontzertua izanen da larunbat honetan Baratzondon

Kultur Egunei azken ukitua ematen ari zaie Euskara Batzordea

OSKAR TXOPERENA

Igantzik Abesbatzak antolatuta musika kontzertua izanen dugu larunbat honetan, azaroak 18, Baratzondoko egoitzan. Urtero eman nahi izaten du herriko abesbatzak kanpoko talderen bat entzuteko aukera, eta aurtengoan hagitz musika berezia egiten duen talde gasteiztarra izanen dugu entzungai, iaz Giltzarri Abesbatza gaztea eta orain bi urte Odeiartz talde tolosar zoragarria izan genituen bezalaxe. Ea jendea animatzen den, segituan etorriko diren Kultur Egunen giroa berotzen hasteko.

Baserrietako produktu eta tresna zaharren erakusketa

Hurrengo alean emanen



laz eskuz egindako lanen erakusketa ikusteko aukera izan genuen. Berriz ere abenduaren 8an izanen da aurtengoa. Argazkia: Oskar Txoperena

dizuegu oraintxe aipatu ditugun Kultur Egunen berri zehatzagoa, baina, aurrerapen gisara, abenduaren 8an eginen den erakusketa- ren gaia aipatu

zuegu, zuetako aunitz animatzea espero baitute egun horren antolaketaren gain hartu duten Biltoki Elkartekoek: Etxe eta baserrietako produktuak eta tres-

na zaharrak. Lehen ere ikusi ahal izan dugu Igantzin gai horri buruzko erakusketa eta seguru gaude plaza aldera egun horretan agertzen dena ez dela penatuko.

Bataioak

Heldu den asteko larunbatean, azaroaren 25ean, izanen dira udazkeneko bataioak. Koadrilla polita bilduko da gainera, bartz izanen baitira bataiatutako haurrak: Leire Guillen, Hegoi Txoperena, Xabier Taberna, Ainara Begino eta Maiana Sein.

Zare zozketak

Martxan duzue da goeneko herrian eguberrietan zozketatutako diren bi zareen errifa salmenta. Zareetako baten zozketa Igantzik Abesbatzak antolatzen du, urtean zehar dituzten ekintzak ordaintzeko, eta bertzea, eskolako haurren eskutik daktorkigu, hauek ere urtea joan orduko harat-honat aunitz izaten baitute ordaindu beharra. Ez zaitez gabe gelditu!



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BARATZONDO

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzik Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

PATXIKU garraio - eskabazioak

Tel: 670 974025



ttipi-ttapa internet

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.com



LESACA



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 orduetako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

ARANTZA

Baserritarren Egunak inoiz baino jende gehiago bildu zuen

Postuak, berriz, bertze urteetan baino gutixeago paratu dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Azaroaren 1ean ospatu zen bortzgarren Baserritarren Eguna. Aurten inoiz baino postu guttiago izan dira baina, aldi berean, inoiz baino jende gehiago hurbildu zen bertan zeuden baserriko produktuak, eskulanak... ikustera. Arantzarrak ez ezik, Bortzirietako eta inguruko bertze herrietatik ere etorri ziren bisitariak. Hurbildu zirenen artean bertako produktuekin osatutako zare eder bat zozketatu zen eta aurtengoan Patxi Iturriak eraman zuen. Eguerdian Ekaitza elkartean bazkaldu zuten, Zeberio eta Mendizabal bertsolariek eta Pasaia-ko txarangak alaitutako bazkarian.

Bertzalde, azaroaren 3 eta 4an ospatu ziren Kultur Egunak. Ortzirak



arratsaldean haurrentzat tailerrak antolatu ziren. Parthartzea hagitz handia izan zen eta haurren erranetan, hagitz ongi pasatu omen zuten. Horren ondotik, berendua izan zuten eta denak Kollins Klown taldeak eskainitako Garbantxo eta Txanagorritxo antzezlanak ikustera joan ziren. Larunbatean, berriz, Mairu taldeak «Trizikloa» antzezlan eskaini zuen. Jon Bergaretxeren kantatdirik ez zen izan, gaizki ulertu baten ondorioz.



Jendeak pilotalekua bete egin zuen, bertan paratuak zeuden produktuak ikusteko. Baserrietatik plazara ardiak ere eraman zituzten.

Argazkiak: Garbiñe

Mendiko pistak egiteko lanak 104 milioiko aurrekontua

Azken alean, pistak egiteko lanen gastua gaizki idatzi genuen. Honela, lan hauen aurrekontua 100.090.594 pezetakoa da eta hone-ri gehitu behar zaio proiektua idaztea kos- tako dena, bertze 4.578.484 pezeta.

Aipatu behar da, mo- du berean, guzira ha- mabi kilometro pista eginen direla Aientsa, Albizaldea, Azkilarrea, Bordalarrea, Aranoko erreka, Irullegi aldea, Galtzada eta Atanborda inguruetan. 109 etxeta- ko bideak moldatuko di- ra gisa honetara.

Bertzalde, Herriko Etxeak etxez etxe ba- natu duen informazio paper berrian, obra hauen eta bertze batzu- ren berri ematen du.

ANTZUZELA S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandua' Mazzoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGIA
JATETXEA

© 948 634179
ARANTZA

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bideak 8 / 82 48100 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax 948 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

DONEZTEBE

Liburutegi berria eta erakusketa-gela antolatzen ari dira Alhondigan

Menopausiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Osasun Zentroak

PATXI IRIARTE

Herriko liburutegia gaur egun dagoen lekutik aldatu eta Alhondigako beheitiko solairuan dagoen aretoan moldatzeko lanak hasiak dira. Liburutegiaz gain, erakusketa-gela bat antolatzeko asmoa dute leku berean.

Alhondigaren azpialde hori biltegi gisara erabiltzen zen eta hor zeuden tresna guztiak, 350 metro koadroko nabe berri batera eraman dira. Lanak martxora ko akituko direla uste du Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak. Lanen aurrekontua 13 milioitik goitikoa da, 8 milioi biltegi berria egiteko erabili dira eta gainerako borts milioiak erakusketa-gela eta liburutegia moldatzeko.

Lan hauen helburua, liburutegia gaur egun dagoen tokitik aldatzea da. Izan ere, Doneztebeko alkateak adierazi digunez, «etorkizunean, musika eskola konzentrazionetik atera nahi dugu eta liburutegia dagoen lekua izaten ahal da egokiena Musika Eskola egiteko». Lan hauetan INEMeko langabetuak ari dira eta materiala Doneztebeko Udalak ordaintzen du.



Iñaki Lareo, EHko zinegotzi berria

Joan den ekainean kargua utzi zuen Txema Aldabek, Doneztebeko Udaleak EHk dituen bi zinegotzietako batek. Bere ordeaz, argazkian ageri den Iñaki Lareo sartu zen. Txema Aldaberen dimisioak bertzelako alaketarik ekarri du, bera baitzen Malerreka Euskara Mankomunidadeko lehendakaria. Mankomunidadeak egindako azken batzarrean lehendakari berria hautatu zuten, Doneztebeko EA alderdiko Xabier Erasun, hain zuzen.

Argazkia: Edurne Zubieta

gia dagoen lekua izaten ahal da egokiena Musika Eskola egiteko». Lan hauetan INEMeko langabetuak ari dira eta materiala Doneztebeko Udalak ordaintzen du.

Menopausiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Osasun Zentroak

Doneztebeko Osa-

sun Zentroak menopausiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, berrogei eta berrogeita hamaborts urte arteko Malerreka emakumei zuzenduak. Jardunaldi hauek lau egun egingen dira, azaroaren 22, 24, 29 eta 30ean, eguerdiko 12etatik 2,30etara, Doneztebeko pisu tutelatuetan.

Doneztebeko Osasun Zentroko langi-

leekin batera, Elizondoko COFES-Haizeako langileek parte hartuko dute jardunaldi hauetan. Solasaldiak, erlajazio teknikak eta bertzelako ekitaldiak egingen dira jardunaldi hauen barnean. Izena emateko epea azaroaren 13tik 20ra zabaldua dago. Horretarako, Doneztebeko Osasun Zentroa deitu behar da (948 456001 telefonoa) eta

flash

❖ Mendi Txiki eta Leitzako Azketa abesbatzak

Doneztebeko Mendi Txiki eta Leitzako Azketa abesbatzek kantaldia eskaini zuten joan den larunbatean Doneztebeko elizan. Bi abesbatzen arteko harremana aurten egin duten elkartrukean isladatu da, udaberrian Leitzan aritu baitziren kantari.

❖ Doneztebetik Leitzara

doan NA-170 errepidea heldu den urteko ilbeltza bitartean itxirik egonen da Lotzabian inguruko lanen ondorioz. Bidea uztailan itxiz, eta urrirako irekiko zela espero bazen ere, segurtasun arrazoiengatik giberatu egin omen da. Bi kilometro terdi moldatzen ari dira eta lanen aurrekontua 553,6 milioi pezetakoa da. Pazientzia izan beharko!



APARAN, S. A. **BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
 948 451 541
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztiak karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06

ETXANDI TXOKO **jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

MALEERREKA

Elurra kentzeko makina izanen du Urrozko Udalak negu honetatik aitzinera

Auto batek kolpatuta hil zen Luisito Telletxea saldiastarra azaroaren 8an

TTIPI-TTAPA

Negu honetan elurra kentzeko makina izanen du Urrozko Udalak, Nafarroako berte 30 herrik bezalaxe. Rafael Gurrea Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne departamenduko kontseilariak eta Jose Ignacio Palacios, Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilariak akordio hori sinatu zuten Nafarroako 31 udal eta kontzejuetako ordezkariekin, Urrozkoak barne.

Nafarroako Gobernuak elurra kentzeko erabiltzen den kuña paratuko du eta gainerakoa (traktorea eta honen mantenimendua, aseguruak, erregaiak...) Urrozko Udalak jarri beharko du. Elurra kentzeko lehentasunak ezarri dira: lehenbizi errepide nagusia garbitu beharko da, gero karrikak eta, azkenik, bideak.

Naziek hildako urroztarra

Munduko Bigarren Gerran Gusen eta Mau-



1,330 kiloko onddoa Saldiasen

1,330 kiloko onddo eder hau Saldiasko Maria Santosek aurkitu zuen urriaren ondar alde horretan. Argazkian onddoa ageri da Edurne, Maite eta Jone ahizpen eskuetan, Maria Santosen alaben eskuetan, alegia. Eskura ez ezik, ahora ere laster eraman zuten hiru ahizpek onddoa.

thausen eremuetan hildako hamazazpi nafarren familiek Alemania eta Austriako Gobernuen kalteordainak eskatzeko aukera dute. Horien artean zegoen Marcelino Larrea Bertiz

urroztarra, 1941eko abenduaren 18an Gusenen hildakoa.

Auto batek kolpatuta hil zen Saldiasko Luisito

Luis Telletxea Aizega,

Saldiasko Luisito eza-guna auto batek kolpatuta hil zen azaroaren 8ko gauean Sunbillaan. Luisito oinez zoaien N-121-A errepidearen 56. kilometroan, eta gaueko 10,30etan jasozuen kolpea eta berehala hil zen. Jatetxe batean izanondotik Sunbilla zoaien Luisito, Saldiasera hurbilduko zuen norbaiten bila, seguraski. Saldias bertan bizi zen, ama eta arreba batekin.

Oihan enkanterako deialdia egin du Beintza-Labaiengo Udalak

Leurtza inguruan dauden 5.469 pago zuhaitzen oihan aprobetxamendurako lehia-keta deia egin du Beintza-Labaiengo Udalak. Guzira, 3.341 metro kubiko zur em-

nen dute eta haserako prezioa 24.884.777 pezetakoa da (gehi BEZa). Proposamenak azaroaren 29ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Beintza-Labaiengo udal bulegoan. Eskaintzen sobreak epea akitu bezain laister irekiko dira.

Herrilurren oihan antolamendua eginen da Eratsun eta Saldiasen

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduaren Mendi Saldias Eratsun eta Saldiasko herrilurren antolamendu lanak hasiko ditu. Lanen aurrekontua 14,78 milioi pezetakoa da eta aurten eta datorren urtean eginen dira. Eratsunen 1.900 Hektarea antolatuko dira eta Saldiasen 375. Inguru hauetan, pago, haritz, gaztain, urki eta ametz zuhaitzak daude gehien bat.

Lan hauek egiteko lehiaketa deialdi urjentea luzatu du Nafarroako Gobernuak.

TRATAMENDUA

Altzari eta zurarena orokorrean (Tarima rastrelak)

Bi aldiz hustu eta Proclav babeslea emanez **Termita, pipi eta sitsak** kentzen ditu eta babesa ematen dio zurari.

metro luze x metro zabal x metro erdi sakoneko komoda

8.000 pezeta (+BEZ)

LESACA Tratamendu Zentrua • ZUTABE • Otxango industrialdea 7 • Tel: 948 637579

ELIZONDO • MALLENEA Dekorazioaren laguntzarekin • Braulio Iriarte 32 • Tel: 948 581848



DEKAPATUAK

ZURA eta BURNITIK

pintura eta barnizak kentzeko hare-zorrotada eta dekapanteak erabiltzen ditugu.

metro luze x metro zabal x metro erdi sakoneko komoda

10.000 pezeta (+BEZ)

GOIZUETA

Herri Olinpiaden edizio berri bat azaroaren 25ean

Gaztetxean, sexualitatea ikastaroa ematen ari da Luis Elberdin

ESTEBAN AROTZENA

Ikaragarritzko arrakastarekin Umore Ona elkarteak urtero antolatzen duen Herri Olinpiadaren aurtengo edizioa hurrengo larunbatean zortzi izanen da, azaroaren 25ean. Eskoletako pilota plazan burutuko diren joko hauek arratsaldeko 4,30etan hasiko dira, eta ohi bezala, elkartearen afari herrikoia izanen da gauean.

Sexualitateari buruzko ikastaroa Gaztetxean

Gazte Asanbladak eta Gizarte Zerbitzuak

antolatutako sexualitate ikastaroa burutzen ari da Gaztetxean azaroaren 10az geroztik, hain ezaguna den Luis Elberdin sexologoarekin.

Sei orduko iraupena duen ikastaro honetatik bi lehenengoak aipatutako ostiralean eman ziren. Beste laurak berriz, ostiral honetan, hilak 17, eta hurrengoan, hilak 24, emanen dira arratsaldeko 6etatik 8etara.

Zeharbidea egiteko bi enpresa aurkeztu dira oraingoan

Herriko zeharbidearen edo trabesiaren proiektu berriak lehe-



Zaharren Eguna ospatu zen urriaren 29an

Urriaren 29an gainezka bete zuten Umore Ona elkarteak 65 urtetik goitiko herritarrek, egun horretan ospatu baitzen zaharren eguna. Bezperako mus txapelketa Xilbino eta Pedrok irabazi zuten; trukekoa berriz, Maria Angeles eta Felixak.

nengoak baino estimazio handiagoa izan duela dirudi, bi eskaintza aurkeztu baitira horretarako irekitako epean, Construcciones Azpiroz y Saralegi eta Asfaltos Campezo enpresenak, hain zuzen. Azaroaren 23an irekiko dira sorkerak eta hurrengo egu-

neko batzarrean jakinen da Udalak nori ematen dion lan hori.

Larreak erretzeko baimena azaroaren 20a baino lehen eskatu behar da

Larreak erre nahi dituztenek azaroaren 20a arteko epea dute eska-

erak aurkezteko. Planoaren eta terrenoaren eskritura osoaren kopia eraman beharko dituzte Herriko Etxera, datu pertsonal guzietan betetako baimen eskaerarekin batera. Suteen kontra egiteko neurri egokia da baimena eskatzarena.

ARANO

San Martin elizako teilatua berritzen hasi dira

Euskara Zerbitzuak bertso afaria antolatu zuen azaroaren 11n

KONTXI K.

Badira hamabost bat egun San Martin elizako teilatua berritzeari ekin diotela. Azaroaren 11n, San Martin Egunean, Aranoko patriaren eguna ospatu zen, nahiz eta askok Santiago dela uste du-

ten. Izan ere, uztailaren 25ean ospatzen dira herriko jaiak.

Badaude herrian beste hainbat obra bolada hontan, alde batetik Etxe-haundi, herriko denda izana Rokerena zenean, baita Juanikoenena eta Estarta-berri etxeak.



Elizako teilatua berritzen ari dira.

Artxibokoa

Bertso afaria egin zen San Roke elkartearen

Joan den larunbatean,

azaroaren 11n, Aranoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, San Roke elkartearen ber-

tso afaria izan dugu, Xabier Legarreta eta Unai Agirre bertsolariekin.

Azaroaren 17an



Doneztebeko feriek azken urteetako egitarauari eutsiko diote aurtengoan ere.

Ortziral honetan, azaroak 17, goizetik aziendak ikusteko modua izanen da. Bertsolariak ere izanen dira eta eguerdi aldean piztu ohi den giro berexia izanen da. Bazkalondorako, herri kirola izanen da protagonista. Joan den urtean bezalaxe, Nafarroako aiz-

Aziendak eta herri kirola

Goizean aziendak ikusi eta bertsolariak aditu • Arratsaldeko 5,30etan Nafarroako Aizkolari txapelketaren finala

kolari txapelketa nagusiaren finala jokatu da udal pilotalekuan. Mikel Mindegia gaur egungo txapelkunak jasoko ditu seguruenik

animorik handienak, baina ez du batere errexa izanen txapelari eus-tea, Nazabal, Larretxea, Senosiain eta Etxeberria ere hor baitira.

MAITE ileapaindegia

GIZON eta EMAKUMEENDAKO
Solarium-a

Mourges Etorbidea 4, ☎ 948 451780 • DONEZTEBE

juli onetokoa

Merkatarien karrika, 21 • DONEZTEBE • ☎ 948 451954

ttipi-ttapa
internet

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

BAR

TITI

Amezti 7, ☎ 948 45 02 71 - DONEZTEBE

CASA COSTIZ

zapadenda
papertegia
estankoa

Gizaseme,
emakume eta
haurrendako
oinetako
aukera
zabala

Tel eta Faxe: 948 450 289
e-posta: costiz@teleline.es
Parrokia 17 • DONEZTEBE

SALDIAS

HARATEGIA

Bertako haragi
frexkoetan
espezializatuak

Karrika Nagusia 21
☎ 948 450191
DONEZTEBE

 **EPELOA** Donamaria

«Bertze lanetan soldata ederrak daude eta zaila da gazteak baserrian gelditzea»

EPELOA

Herria

DONAMARIA

Nagusia

Santiago Jorajuria

Kontxi Bazterrika

Zer?

Esne behiak

Azienda kopurua

131 esne-behi

Kuota

523.000 kilo



Epeloako Santiago Jorajuria eta Kontxi Bazterrikak zail ikusten dute sektorearen etorkizuna.

Azkarraga auzoko Epeloa baserriaren ondoan jarri dute esne-behien granja Santiago Jorajuria eta Kontxi Bazterrika senar-emazteek. «Migak eta jeizteko behiak kontatuta 131 buru ditugu eta esne kuotari dagokionez, urteko 523.000

litrokoa dugu. Europatik egin den azken banaketan 40.000 litro hartu ditugu». Azienda guzi horiek bazkatzeko, etxeko bazkaz gain kanpotik ere

ekarri behar izaten dute. «Alfalfa batez ere, partikular ekartzen dugu. Etxean, berriz, artoa egiten dugu 10 Hektareatan eta red-grasa ere sartzen

dugu. Honerik bikorte kentzen dizkiogu udaberrian eta gero artoa sartu. Aurtengoan gainera, euria egin du eta artoa ikaragarri hazi da, hiru me-

tro terdi. 430.000 kilo arto bildu dugu aurtén. Hori guzia biltzeko, ITGko CUMAKo tresneria erabiltzen dugu, honat etortzen direnean aprobetxa-

Nerea
Oinetakoak
FERIAK
ONGI PASA
ITZAZUE
San Miguel 2
DONEZTEBE

ARozENA ostatua
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder 3, Tfnoa: 948 450 443 - DONEZTEBE

ttipi-ttapa
internet
<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

IRRINTET
*Aurtengo
feriak umore
ederrean
pasatu*
OSTATUA
Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE


**ALBAITERITZA
ZENTRU TEKNIKOA**
Juan Ramon Ostiz
Karrika Nagusia 1, ☎ 948 45 05 91 - DONEZTEBE

**MARTIN
HARATEGIA**
*Bertako
aretxiak*
Parrokia 1
☎ 948 450160
DONEZTEBE



tzen dugu. Arto landare guzia xehatu eta hori ematen zaie aziendei, hagitx gustora jaten dute. Artoarekin eskas ibilki garela ikusten badugu, kanpotik ere erosten dugu, Baiona aldetik. Erriberan prezio beretsuan dago, baina garrarioa merkeagoa ateratzen da eta ITGkoek dena Frantzia aldetik ekartzen dute». Esnea Danone enpresari saltzen diote. Gaur egungo oinarritzko prezioa, litroa 46 pezetakoa da, baina kalidadearen arabera aldatzen da, grasa, proteina eta zelulak kontuan hartuz sariak edo deskuentuak izaten baitira.

Etorkizun beltza

Bi seme eta alaba dute Santiago eta Kontxik. Bi oraindik ikasten ari badira ere, zaharrenak ez du baserrian lan egiten. Beraz, baserriaren eta



sektorearen etorkizuna ez dute sobera baikor ikusten Epeloakoek: «Hau lan lotua da. Seme-alabak oraindik gazteak dira, baina momentuz ez dute lan honetan aritu nahi. Lagunak bertze lanetan ikusten dituzte, jorنال ederrerekin, asteburuak libre eta barkazioekin... eta baserriak ezin du hori dena eskaini. Gazteak dira eta gero buelta ematen ahal dute, baina oraingoz ez

dute afizio sobera». Irtenbidea soziedadek egin edo kooperatiba gisara funtzionatzea dela uste dute Kontxi eta Santiagok: «Dudarik gabe hori da soluzioa, soziedade, SAT edo kooperatiba eginez gero, txandatzuz lan egiteko aukera dugu eta libre izateko modua dugu. Dena den, gure inguru honetan ez dago horretarako ohitura handirik».



**Dastazazu
gure pintxoak**

Parrokia 21 • DONEZTEBE

**GIZASEME eta EMAKUMEENDAKO
BOUTIQUE**

**HONORIO
TABERNA**

© 948 450109
Merkatarien karrika, 29 • **DONEZTEBE**

Bar El CAFE

Martxarrik
onena
Pintxo eta
bokadiloak

Parrokia 3, © 948 450 318 • **DONEZTEBE**

**Bar - Restaurante
"El Rio"**

**Bildots errean
espezializatuak**

Doneztebeko fentetan ere eskura gaitugu

31793 Narbarte (Bertizarana) • © 948 45 04 27

LAKANBRA MOTOAK
Husqvarna motozerrak aukeran

*Motozerra hauetako bat
erosteagatik...*

- Husqvarna 340-15"
- Husqvarna 350-18"
- Husqvarna 61-18"

Txaleko hau zuretzat!

HUSQVARNA 61 • 110.185 pta.

*18"ko 372XP erosteagatik,
erloju
zoragarri hau!*

HUSQVARNA 372XP • 156.580 pta.

Parrokia 18 • © 948 450082 • **DONEZTEBE**

Migelena Anaiak

Erlojudenda eta bitxidenda
Sukalde eta bainuko mobleak
Elektrogailuak eta sukalde tresneria
Zerbitzu teknikoak

Amezti • © 948 450126 - 677 525292 • **DONEZTEBE**

 **MEAKAKO BORDA** *Urrotz*

"Kuotaren gaintetik produzitzeagatik egurra eman digute hemengo baserriei"

Jose Antonio Artzuaga da Meakako Bordako nagusia, gaur egun. Aitak utzitako granjan lanean harrapatu dugu. Aitak berak lagundu egiten dio orain, baita osaba batek ere. 34 urte ditu, baina ez omen da Urrotzen esne-behiak dituen nagusirik gazteena. «Urrotz bezalako herri ttiki batean, zortzi bat granja daude eta mila behi inguru izanen dira. Bada 26 urteko gazte bat baserri horietako batean nagusi dena». Meakako Borda duela hogeita bi urte egin zuten, baina duela pare bat urte inbertsio kozkorra egin behar izan zituzten: «Behiak automatikoki jezteko sistema jarri genuen, Nafarroa osoan laugarrena zela uste dut, eta 4.000 litroko esne tankea ere erosi



Jose Antonio Artzuaga: "Urrotz bezalako herri ttiki batean zortzi granja daude eta mila behi inguru izanen dira".

si genuen. Migendako beritze nabe bat ere egin genuen aparte. Beti zerbaitetan hobetu behar da, hau ez da gelditzen». Hori dena ordaintzeko suben-

tzia lortu zuten, baina Jose Antonioren ustez, hobe da mailegua eskatzea: «Subentzioek ez dute interesik eskatzen, baina zortzi urteren buruan

dena itzuli behar duzu. Kreditoekin, berriz, nahiz eta gehiago ordaindu lasaiago hartzen ahal duzu, 15 bat urtetan itzultzeko». Lur-eremua ere badu-

MEAKAKO BORDA

Herria
URROTZ

Nagusiak
Jose Antonio
Artzuaga

Zer?
Esne behiak

Azienda kopurua
90 esne-behi

Kuota
450.000 kilo

CORSA BERRIA

MENDAUR MOTOR



- Kotxea ITV pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI, NISSAN, MITSUBISI eta OPEL ibilgailuak
- Aukerako ibilgailuak
- Tapizeriak garbitzen ditugu
- Ezkontzetarako autoak apaintzen ditugu

Leitzako errepidea • © 948 45 03 33 • **DONEZTEBE**

Janbara
*Oparia
eta Dekorazioa*

**ONGI PASA
FERIETAN!**

Nagusia, 19
Tel. 948 451921
DONEZTEBE

Angie

Elizagibela, 7 Behea
© 948 45 01 02
DONEZTEBE

Ingelesa ikasteko
modurik errax
eta atsegina

Ongi pasa feriak!



«Guk esne gehiago produzitzeko problemarik ez dugu, baina Europak ez du onartzen. Horregatik, multa kozkorrak jaso ditugu».

te Meakako Bordan, baina Jose Antoniok onartzen duenez, «arras txarra». Horregatik CAR Belatetik ekartzen dute alfalfa, arto dultze pixko bat eta belar bolak.

Esnea Danoneri saltzen dio eta oinarritzko prezioaren gain -46 pezeta- sariak eta deskontuak izaten dira. Etorkizunera begira, «honek aunitz aldatu behar duela» uste du Jose Antoniok. «Dena goiti doaie, gasoila, albaitea, aseguruak... eta esnearen prezioa berri, estankatua. Errentagarria izateko litroko hamaka durora ailegatu beharko litzateke oinarritzko prezioa. Gainerakoan duela bortzehen urte bezala gaude, hirutik bi bertzendako joaten da».

Kuotaz gain produzitzeagatik isunak

Baina prezio apalena ez da inguru honetako baserritarrek duten arazo bakarra. Aurten, onartutako kuotaz gaindi esnea produzitzeagatik multa kozkorrak jaso dituzte Europatik. «Kuotaren asuntoa ere gaizki dago. Aurten Europatik berrogei bat mila litro jaso ditugu, jasotzen ahal zen gehiena, baina bertze aldetik kolpe gogorra jaso dugu hemengo baserri gehienak, kuota baino gehiago produzitzeagatik. Horregatik isun handiak jaso ditugu. Guk gehiago ateratzeko problemarik ez dugu, baina Europak ez du onartzen. Behie nahi duten guzia eman ezinik gaude. Esne beltza dagoen bi

tartean, honek ez du aterabiderik». Europatik egindako azken banaketarekin, 450.000 kiloko kuota gelditu zaie Meakako Bordakoei. Guzira 90 bat buru dituzte, «berrogei miga eta berrogeita hamar behi inguru».

Honetan segitzeko, beraz, azizendak eta ofizioa gustatzea nahitaezkoa da Jose Antonioren ustez: «Hemen barkazioekin eta ezin da ametsik ere egin. Honetan aritzeko gustoa behar da. Herri honetan dena bakarka gaude eta soziedadek egitea ez da errexa». Asteburuak libre hartzearena ez du arazotzat jotzen Artzuagak: «Besta ederra egitean ahal duzu, goizaldean etxera ailegatzekoan behiak jetzi eta lotara».

RUIZ okindegia

Autozerbitzua

© 948 45 00 37 • Karrika Nagusia 3 • DONEZTEBE



Donztebe autozerbitzua

**A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E karnetak
ateratzen ahal dira**

Feria onak pasa!

© 948 451 929

Leitzarako errepidea, 2 behe • DONEZTEBE



SANTAMARIA

**Jatetxea
Hostala**

Eguneko Menua eta karta zabala

Besta egunetan menu berezia

Otordu berezi-bereziak (eztei, bataio, jaunartze...)

Gurean bakarrik topatuko dituzun berezitasunak

Nagusia 30 • © 948 450043 • DONEZTEBE



*Ibarburu
erretegia*

Iruña-Irun errep, 55 km.

© 948 45 17 62

DONEZTEBE

Eguneko-menua

Karta

Gosariak

Rinto-bestak

Komunioak

Roadrila ofuriak, bazkariak...

*Astearte eta asteazken
bazkalondotik aitzin itxita*



- Lurrindegia •
- Apaindegia •
- Oparidenda •

• Denboraldiko osagarriak

• Bitxidenda

• Estetika:

Aurpegiko tratamenduak, Peeling, oxigenazioa

• Ile-kentze elektrikoa edo argizariarekin

• Makilaia



*Lancaster
zure oparia*

Amezitia karrika z/g • © 948 450163 • DONEZTEBE

Nafarroako aizkolari txapelketak girotuko du bazkalondoa

Anjel Mari Peñagarikano eta Xebastian Lizaso bertsolariak ariko dira goizean

Doneztebeko feriek azken urteotako bidea segituko dute aurten ere. Beti bezala, azienda feria izanen da goizean eta herriko eta inguruetako tratante ezagunak espero dira, beraien behirik onenekin. Azken urteotan, bertzelako aziendarik ere ikusi da: ostrukak, astoak... Aurtengoan ere izanen da sorpresaren bat akaso. Aziendez gain, Doneztebe aldeko auto eta traktore saltzaileek ere aprobeztatzen dute beraien generoa erakusteko. Eta zer erranik ez, kanpotik etortzen diren saltzaileek ere izanen dute zer saldu: jertseak, guardasolak eta gisa guzietako tresna eta janariak.

Eguerdian, Anjel Mari Peñagarikano eta Xebastian Lizasok bertso saioa eskainiko dute. Hortikan, tragoxka batzuk hartu eta bazkarirako bidea hartuko dute gehienek. Bazkalondoa, normalean, herri kirol saioaren bat izaten da eta



Baratzuriak erosi nahi dituenak izanen du horretarako aukera ederra ortziraleko feria egunean.

aurten ez da guttiago izanen. Aizkora izanen dute pilotalekura hurbiltzen direnek, eta ez nolana hiko saioa gainera: Nafarroako Aizkolari txapelketa nagusiaren finala, hain zuzen.

5,30etatik aitzinera Mikel Mindegia zubietarra, Donato Larretxea arantzarra, Felix Etxeberria sunbildarra, Etxarri Aranazko Floren Nazabal

eta Olagueko Jesus Senosiain ariko dira nor baino nor. Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko izanen dituzte mozteko.

Mindegia, bere 51 urtetan, iaz irabazitako txapela gordetzen saiatuko da, baina ez ditu kontrario xamurrak izanen. Nazabalek sasoi ederra erakutsi zuen Euskal Herriko txapelketan.

JUAN J. PIKABEA



ARROPA KONFEKZIOAK

GIZONENDAKO JOSTUNGINTZA

EGINDAKO TRAJETAN AUKERA ZABALA

AMEZTIA Z/G, TFNOA: 948 451 670
DONEZTEBE



**Jose Luis
SAN MIGUEL**

STHIL Zerbitzu Ofiziala

• Bizikletak • Motoak • Nekazal Tresneria •
Salmenta eta konponketa

Ongi pasa feriak!

☎ 948 450711 • **DONEZTEBE**



Ameztia

Hostala • Jatetxea • Ostatua

Tfnoa: 948 450 028 • **DONEZTEBE**



**610 21 33 26
948 45 06 87**

Parrukia Karrika 10
31740 **DONEZTEBE**
(Nafarroa)

Eder



Ederki



T a i l e r r a k

Citroen agente ofiziala

Peugeot agente ofiziala

Grua zerbitzua 24 ordutan

Mekanika • Elektrizidatea • Txapa • Pintura

Hidraulikan espezialistak

Xsara



206



Donezteben

Leitzako errepidea - Tfnoa: 948 45 05 25

Presio bidezko garbiketa:

- Kotxearen azpialdea garbitu
- Zikina beratzeko aparra
- Argizariaren distira

DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea, 49
Tel.: 948 451679
Fax: 948 450857

Barnealdeko garbiketa:

- Aspiradora
- Alfonbrak garbitzekoa

Auto-garbitzaile automatikoa



Gasolinera Zerbitzua

- Denda
- Bigarren eskuko kotxeak eta erremolkeak erakusketan



Kontxa gasolindegia

Kalefakzioa • Traktoreak

Deitu eta egun berean edo biharamonean
etxera serfitzen dugu

Garraio enpresetan tankeak jartzen ditugu

Kontxa kafetegia

Bokadiloak eta platerak
Ogi egin berria

Ongi pasa feriak!



Tel: 948 450272 • Faxe: 948 450810 • **DONEZTEBE**



- Etxegintza eta burdindegia materialak
- Zeramikak
(Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)
- Teila frantsesak
(Guiraud, TBF)
- Egurrezko sukaldeak
- Tximiniak

© 948 450305 / 948 450068
DONEZTEBE

Orain
LACUNZA banatzaileak



Azaroaren

Zaldi azienda nagusitu da azkeneko urteetan Lesakako ferietan. Behiak gero eta guttiago agertzen dira plazara.

Azaroaren 29an, asteazkenarekin, Merkatu Eguna burutuko da. Azken urteetan bezalaxe, arrats partean ajoarriero lehiaketa antolatuko du Beti Gazte elkarteak eta Lesakako trikitixa eskolako ordezkarien eskutik musika izanen da plazan. Dena den, egun handia ortzeguna izanen da, azaroaren 30a. Karrikan izaten diren saltzaile postu ugarien artean lekua egiten badute behinipein, Bortzirietako behi, zaldi eta ardi azienda onenak espero dira plazan. Sariak ematen dituen feria bakarra da eskualdean eta aberea

Azienda onenak sari-tuak

plazara eraman alde saria segurtua dute abeltzainek. Eguerdi alde-herri kirol jaialdiarekin eta bertsolarien saioarekin gozatzeko modua izanen da. Arratsaldean, pilota partiduak izanen dira udal pilotalekuan. Lau terdiko txapelketaren partiduren bat ekarri nahi zuen Herriko Etxeak. Arrats par-

tean, plazan Alaitz eta Maider ariko dira, beraien musika alaiarekin arrats parteko hotza uxatzen. Egitarau ofiziala hori izanen da, baina hortik kanpo, saltzaileak, tonbolak, lagunarteko poteoa, bazkaria... Bortzirietako feriak kontu aunitz eskainiko dizkio Lesakara hurbiltzen denari.

ODRIOZOLA eta HUIZI

**ZERRAILGINTZA
TAILERRA**

Alkaiaga Industrialdea - Elutsa, Pab 3-18
© 948 631244 • BERA



Ongi pasa ferietan!

**TELEBOTE
OSTATUA**
Feria onak pasa!
Arretxea, 10
Tfnoa: 948 637188
LESAKA

IGARZABAL
ILEAPANDEGIA - ESTETIKA

Albistur, 15 behea • LESAKA • Tel.: 948 637 280

GOIZ-ARGI
Jantzera • Lentzeria • Bixebarnea

Plaza Zaharra, 14 • © 948 637 721 • LESAKA

KASINO Ostatu-jatetxea
Plaza Zaharra 14 • © 948 637152
LESAKA

Iñaki OLAIZOLA

- ELEKTRIZITATEA OROKORREAN
- MUNTAIA ELEKTRIKOAK
- ALARMA ETA PORTERO AUTOMATIKOAK

Bitirira 39 • LESAKA
© 948637405 • 670 417499

Feria ederrak pasa!

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOLAZA

Tel. 948 637 460

31770 Lesaka (NAVARRA)

LESACA AUTOESKOLA

LCC bi egunetan azterketarik gabe

Tfnos: 948 63 78 70

Albistur 39 - H

A1 - A - B - BTP - C1 - C eta E
karnetak ateratzen ahal dira

Bortzirietako baserriak: lehen eta orain

BERREU Lesaka

«Behi eroen eritasunak ez du eraginik inguru honetako harategietan»

Azken urteotako ferietan, haragitako behiei eta azienda onenari emandako saria eraman dute gehienetan Berreu baserriko behiek, baina Juanan Prietok ez dio horri meritua sobera ematen. «Egia errateko, haragitako behietan nik bakarrik aurkeztu ditut aziendak azken urte hauetan. Gehiago izanen balira ere sariren bat irabaziko nukeela uste dut, baina...». Hori dela eta, aurten ez du lehiaketara azienarik aurkezteko asmorik. «Behiak garbitu egin behar dira, azkeneko asteetan hobekixeago bazkatu, garraioa ordaindu behar duzu... Sariak eramanda ere ez da diru sobera gelditzen. Gainera, ez bada inolako kompeten-



Pirenaika eta blonda arrazako 50 bat azienda dituzte Berreun.

tziarik azkenean gogorik ere ez duzu».

Aitzinetik aukeraketa bat egin beharko litzateke

Juanan Prietoren ustez, azienda feriatan kalitatea hobetzeko aldaketa batzuk egin beharko liratekeen: «Egitan azienda onenak aurkeztu direla segurtatzeko, teknika-

riak baserri baserri ibili beharko lirateke, aitzinetik aukeraketa bat egiteko. Gero, aziendak jaustea-gatik laguntza bat eman eta sari nagusiak handixe-agoak paratu. Egitan feria mantendu nahi bada hori egitea behar beharrezkoa da». Juanan Prietok Beran duen harategian saltzen ditu

R

RUTH ILEAPANDEGIA MATEA
BERRIA, 55 61 19
31770 LESACA (NAVARRA)
TEL: 948 637 436

ttipi-ttapa internet

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com



Feria mantendu nahi bada, agertzen diren azienden kalitatea segurtatu eta saria hobetu behar direla uste du Juanan Prietok.

Berreun hazitako aretzeak. Auzoberriko base-
rrian aziendak zaintzen
Laxaro Mujika izaten da
aste osoan eta bera aste-
an bizpahiru aldiz joaten
da. «Orain 50 bat buru
ditugu, 20 bat bizirik kon-
tzeiko behiak, pare bat are-
tze eta zezena izaten dira
eta gainerako 30ak, lodi-
tzeiko eta harategirako are-
tzeak. Bortz hilabete di-
tuztela hasten gara bazka-
tzen eta urtearekin hiltzen
ditugu. 350-380 kilo in-
guru hartzen dute arrek eta

300 emeek. Pirenaika eta
Nafarroako hile horia dei-
tzen diren arrazatakoak di-
tut, beraien jatorria argi-
tzen duten paper guziekin.
Erosterako orduan gares-
tiagoak dira, baina bada-
kizu zer erosten duzun. Hil
eta saltzerako orduan ere,
handiagoak dira eta prezio
hobea egiten dute».

«Behi eroen eritasunak
ez digu kalterik egiten»

Europa osoan furi-fu-
rian dabilen gaia da behi
eroen eritasunarena:

BERREU

Herria
LESAKA

Nagusiak
Juanan Prieto

Zer?

Haragitako
behiak

Azienda kopurua
50 behi
(garaiazen arabera)

KAXULA

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

★ IZARRA ★

OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
☎ 948 63 78 55 • LESAKA



SEMPER AUTOESKOLA

Goizeko 9etatik 1etara eta
arratsaldeko 4,30etatik 9etara
Zure ordutegira moldatzen gara

Eztegara Pasealekua, 22 • BERA
☎ 948 630298 eta 948 637206



GARRAIO AGENTZIA

ESTATU BARNEKO eta ESTATU ARTEKO GARRAIOAK

• Antoiu 23 • Behea

• 31770 LESAKA

• Tfnoa: 948 627644

• Faxe: 948 627656

ttipi-ttapa internet

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

Juanjo ERRO

Zurgindegi lanak
orokorrean

Moble zaharren
konponketa

☎ 948 637 862
Alan-Zahar - LESAKA

«Hemengo harategi guziek ez dugu salmentan behera-kadarik somatu eta ez dugu inoiz somatu gainera. Klenbuterolaren afera aterazenean ere ez genuen deus somatu, akaso gehixeago saldu genuen. Gure bezeroek badakite bertan hazitako aretzeen haragia dela harategietan saltzen dena... konfidantza osoa dute».

Jateko, Erriberatik ekarritako belar lastoa eta Betelun egiten duten pentsu naturala (artoa, garagarra eta sojarekin egina) ematen diote aziendei. «Hazteko behar dituzten zuzentzaileak, mineralak, etabar... izaten dute, baina guztiz naturala da pentsua». Hiltzera berriz, Iruritako hiltegi-
ra eramaten dituzte: «Lehen Beran hiltzen genuen, baina erosoagoa da Iruritan. Han hiltzen dute, kamaratan kontzen dituzte eta asteen behin ekaritzen dizute haragia. Ga-



Juanan Prieto: «Aretze haragiak duen prezioa ikusita subentzioak nahitaezkoak dira».

restixeago ateratzen da, baina luzera merkeagoa da».

Haragitako behien sektorea dirulaguntzen menpe dagoela uste du

Juanan Prietok: «Aretze haragiak duen prezioa ikusita subentzioak nahitaezkoak dira». Dena den, etorkizuna ere baduela uste du Prietok. «Hemen

goiti eginen du haragitako behien sektoreak. Belagiak garbi kontzeko edozein baserrian paratzen ahal dira behi hauek, esnetakoak baino lan guttiago eskatzen

dute. Baserriko lagungarri gisara hartzen ahal da, behi gutti batzurekin, baina honetaz bizitzeko ongi pres-tatu behar duzu».

ALMACENES ETXANIZ SA



Lesakako
Iturria anaiak

- Bainuak
- Sukaldeak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasajea
- Osagarriak

ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tínoa. 943 61 17 67
Fax: 943 61 44 64

IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

Nafarroako beste eskualdetan baino haur gutxiago sortzen omen dira Leitzaldean

Leitzako Osasun Zentroa bisitatu zuen Cervera kontseilariak azaroaren 7an

JOSEBA AZPIROZ

Leitza, Goizueta, Arano eta Areson mila biztanleko 7,1 haur sortzen dira, Nafarroako batezbestekoa 9,4koa den bitartean. Joan den urtean 27 haur jaio omen ziren lau herri hauetan. Modu berean, 65 urte-tik gorako populazioaren portzentaia ere txikiagoa da Leitzaldean Nafarroan baino. Datu hauek eta beste zenbait azaldu zituen Santiago Cerverak, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamenduko kontseilariak, azaroaren 7an Leitzako Osasun Zentrorra egindako bisitan. Osasun arloko langileekin eta eskualdeko alkateekin bildu zen, eta hauek beraien eskariak azaldu zizkioten. Zonaldean osasun zerbitzu gehiago izatea eskatu zuten, batez ere errehabilitazioa eta ginekologia zerbitzuak. Cerverak adierazi zuenez, «*ginekologi espezialista norberak aukeratzea nahiko genukeen, horretan saiatzen ari gara. Honela Leitzaldeko emakumeen ez lukete nahitaez Etxarri Aranazko zentruraino joan beharrik izanen*».

Leitzaldeko Oinarrizko zonaldean osasun kontseiluak ongi funtzionatzen duela agertu zuen kontseilariak. Maria Artieda, Leitzako Osasun zentroko zuzendariaren ustez, aurrerantzean bilerak gehiago egin behar-lirateke.

LEITZA

Gazte mugimenduari buruzko mahaingurua antolatu du Marmarik

Larunbat honetan, arratsaldeko 6etan egingen da Aurrerako egoitzan

JOSEBA AZPIROZ

Larunbat honetan, azaroak 18, arratsaldeko 6etan «Gazte mugimendua Leitzan, gazte-txea, gazte taldeak...» gaiarekin mahai-ingurua izanen da Aurrera elkarteko egoitzan. Marmarik antolatutako ekitaldi honetan, adin ezberdinetako herriko bost edo sei gaztek parte hartuko dute.

Leitzako zinemaren programazioa

Datozen asteetan, honako filme hauek izanen dira ikusgai Leitzako zineman: Azaroaren 17an eta 19an, «Gladiator». Azaroaren 24 eta 26an, «Cosi ridevano» eta abenduaren 1 eta 3an «La virgen de los sicarios». Ostiraletan gaueko 10,30etan eta igandetan arratsaldeko 7,30etan dira emanaldiak.



Osasun kontseilariak Osasun Zentroa bisitatu zuen

Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuako Osasun Kontseilariak egindako bisitan Leitzako Osasun Zentroa bisitatu zuen. Bertan eskainitako prentsaurrekoan, Leitzako Oinarrizko Osasun zonaldeko hainbat datu eman zituen: Bularreko minbiziaren prebentziorako 600 emakumezkoei frogak egin zizkioten eta bi kasutan minbizia diagnostikatu zen. Programa honetara deitutako emakumeetatik %80,35ak egin dituzte frogak (Nafarroan %87,74ak). 1993 eta 1996 urteetan 32 minbizi diagnostikatu ziren gizon-gezkoetan eta 19 emakumezkoetan. Aurtengo lehenengo sei hilabetetan 20.251 kontsulta izan dituzte eskualdeko osasun etxeetan. Sei mediku, sei erizain, bi administrari eta pediatra bat ari dira lanean eskualdean.

Ukrainako folk taldea Torrean azaroaren 24an

Ukrainako «Galizia» folk taldea Torrean izanen da azaroaren 24an, ostirala, gaueko 11etatik aurrera. Sarreran borondatea uzten ahal da.

Lizarra-Garazi Txikiri buruzko azalpena

Aurreko alean, Leitzako Lizarra-Garazi Txiki taldeak Akordioaren eta Euskal Herriko egoera politikoaren inguruan egindako eztabaidaren ondorioz argitaratu dituen hausnarketei Udalak bere atxikimendua ahobatez eman zio-la adieraz genuen, baina UPN taldeko zinegotziek ez zuten onartui. Barkatu hanka sartzea.

ARESO

Azkeneko meza eman zuen herrian Fernando Razkin apezak

Aurrerantzean, David eta Juan Bautista izanen dira unitate parrokieko erretoreak

JUANA MARI SAIZAR

Azaroaren 5ean Fernando Razkin herriko apezak azkeneko meza eman zuen herrian. Lau urtez bere zerbitzua eskaini ondotik, utzi gaitu Iruñeko beste parro-

kiara joateko. Elizbarrutian aldaketak dau-de eta orain unitate parrokiak sortu dira. Areso, Leitzan, Uitzan eta Gorritik bat sortu dute, eta bi apaizek, David eta Juan Bautistak serbitzatuko dituzte.

Autobidetik industraildera doan bidea zolaberritu eta zabalduko dute

Autobide inguruan dauden beste hainbat obra osagarrien artean, industraildera doan bidea zabaldu eta zolabe-

rrituko dute. Sarrerako bihurtzea hobetu dute eta neguan erabiltzen duten gatzarentzat gatzategia jarri dute hantxe. Industriadan belana bukatu dute eta orain belarra erein eta zuhaitzak aldatzeko hi-

tza eman du Herrilan Departamentuak.

Erreka txukuntzeko lana egingo da

Aste honetan hasi behar dute erreka txukuntzeko lanak, eta Coiser enpresak egingo du.

BAZTAN

Elizondoko Kultur Etxean hainbat ekitaldi izanen dira azaroan

Abenduaren 2an, Chillida-Lekura ateraldi kulturala egingen da

TTIPI-TTAPA

Arizkunenea Kultur Etxean hainbat kultur ekitaldi izanen dira azaroan. Hilaren 22a artio, Elisabet Mendiak eta Elisa Muñozek «Gure artista gazteak» margo erakusketa zabalik dute, astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 6,30etatik 9etara.

Bertzalde, Folk Ametsetan zikloaren azken emanaldia izanen da igande honetan, azaroak 19, arratseko 8etatik aitzin kultur etxeko sabaian. Euritan Blai talde euskalduna ariko da. Aitzineko igandetan Pedro Lima Kubako pianojolea, Anna luna Brasil Band brasildarrak eta D'Astura asturiarrak izan dira Kultur Etxean.

Bertzalde, Arizkuneatik aterita ere izanen da kultur saio interes-



Javier Santxotena bere lanak erakutsiko dizkie larunbat honetan Gorrienean bartz eta hamabi urte arteko neska-mutikoei. Artxibokoa

garririk aste hondar honetan. Larunbatean, azaroak 18, goizeko 11etan, «Egilea eta bere obra haurrekin» ekitaldia gauzatuko da Arizkunge Bozate auzoko Gorrienea Etxean. Javier Santxotena eskulturgi-

lea, 5 eta 12 urte arteko haurrekin izanen da, bere lanari buruzko azalpenak eskainiz.

Akitzeko, abenduaren 2an, larunbata, Chillida-Lekura ateraldi kulturala egingen dute. Izen ematea Arizku-

nenean egin behar da, 2.600 pezeta ordainduz (autobusa, sarrera eta bisita gidatuak barne). Hamasei urte beteak izan behar dira txango honetan parte hartzeko eta goizeko 9etan abiatuko da autobusa.

flash

Mariano Izeta

Arkupeak erretiratuen elkarteak Pilarika Egunean egingako omenaldiaren ondotik, Mariano Izeta Euskaltzaindiako ohorezkoa kide izendatu zuten urriaren 27an egindako batzarrean.

Herri lurretan luberriak sortu eta hobetzeko

proiektuaren zabalteza ahobatez onartu du Balleko Udalak. Goizerain, Zumartegi, Aizkoa-Bagola, Arazela, Otxondo eta Armatela inguruetan egin beharreko lanen aurrekontua 6.124.800 pezetakoa da eta urrian idatzi du Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza, Nekazaritza eta Elikadura Departamenduak.

60 zaborrontzi

erosteko lehiaketa deia egin du Udalak. 5.400.000 pezetakoa da aurrekontua. Eskaintzak abenduaren 11rako behar dira.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

ARROPA DENDA
Gazteendako
era guzietako
arropa
Lanerako arropa

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiro karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

Gierreserena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak

SOULE
Hileta artea
© 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxes: 948 453375
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, © 948 580 013
ELIZONDO

BAZTAN

Behi esne kuota uzteagatik laguntza eskatzeko epea abudo akituko da

Azaroaren 30a arteko epea dute horretarako abeltzainek

TTIPI-TTAPA

Hirugarren urtez, behi esne kuota uzteagatik laguntza emanen da Nafarroan. Aurten-goan, %10 igo da laguntza. Honela, 40.000 kiloko kuota baino gutiago duten abeltzainek kiloko 66 pezeta jasoko dute, eta kiloko 55 pezetakoa 40.000 kilo baino gehiago dutenek. Aurten uzten den kuotarekin, heldu den urteko erreserba osatuko da. Kuota uzten duten abeltzainek, heldu den urteko martxoaren 31 arte segitzen ahal dute esnea produzitzen eta urte berean jasoko dute kalteordaina aldi bakar batean. Hori bai, eskaerak urte honetako azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eskualdeko Nekazaritza Bulegoan.

Ipuin eta komiki liburua argitaratu da

1999 eta 2000 urte-etako ipuin eta komiki lehiaketan saritutako lanekin liburuxka argitaratu du Baztango Udaleko Euskara Zerbi-



Baztan Ikastolaren behorra Irurritako Josetxo Obregozok ereman zuen

Bertze urte batez Baztan Ikastolak behor bat zozketatu zuen Elizondoko ferietan. Eguerdiko ordu batean egin behar zen zozketa pixko bat gibeleratu zen eta jendea pilatu zen pottokaren inguruan. Azkenean, ordubata eta leurdentan ikastolako zuzendariak, haur batzuz lagunduta, 1.510 zenbakia atera zuen. Zenbaki saritua Irurritako Josetxo Obregozori egokitu zaio.

tzuak. Amaia Rodriguez Zaldia teknikariak

errandakoaren arabera, «denendako irakurgai

egoteaz gain, bertako literatur sormena areagotzeko lagungarri, eta gazteei literatur eta komiki zaletasunerako pizgarri izan dakien nahiko genuke».

Zojaia-Donztebe errepede lanen kontrola

Belateko lanen barnean, Zojaia-Donztebe errepede zatiaren lanen kontrola egiteko asistentzia teknikoa «Icosa, Ingenieria Civil, S.A.» enpresak egingen du 69.941.624 pezetaren truke. Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilariak eman ditu lan hauek, Foru Agindu baten bitartez. Lanak egiteko epea hemeretzi hilabeteakoa da.

Xorroxineko langile eta berriemaileen bazkaria Arizkun

Azaroaren 25ean Arizkongo Ordoki erregian egingen dute Xorroxin Irratiko langile eta berriemaileen urteko bilkura.

flash

Baztango Mendigoizaleak

Hilabete huntan hiru ibilaldi egingen dituzte Baztango Mendigoizaleak. Igandean Arizkongo Burga ingurura gan ziren. Igandean huntan, azaroak 19, Aiako Harrira ganen dira eta azaroaren azken aste hondarrean, Bertiz eta Legasa arteko zeharkaldia egingen dute.

1937ko kintoen afaria Almandozen

1937 urtean jaiotakoek kinto afaria ospatuko dute Almandozko Beola jate-txean abenduaren 9an, larunbatean, Baztan, malerreka eta Bortzerrietakoak. Eguerdiko 12etan Almandozko elizan meza ospatuko dute hildako kintoen oroimenez eta ondoren bazkari ederra. Bazkarira joateko izena eman behar da Beola jatetxean abenduaren 6a baino lehen.

Lur trukaketa

Oronozko eskola ondoan M^a Josefa Aizpuruk dituen 31,75 metro, herri lurretako 1.440 metroren truke aldatuko dira.

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

Baztanen...



LOREDENA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Irurritan...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun
24.000 irakurle

Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan

© 948 63 11 88

SARA

Santa Katalina ohoratua izanen da azilaren 26an Olhaldeko kaperan

Lana eta familiari buruzko mahaingurua izanen da azilaren 21ean

ANA MARI ETA FRED

Urtero bezala Santa Katalina ohoratua izanen da azilaren 26an Olhaldeko kaperan. Besta bezperatik hasiko da Ihalar auzoko Baratxartea jatetxean, tripotx jatearekin. Ez du dudarik betiko arrakasta ukanen duela gau honetarako.

Pleka trinketeen musean eta pilotan hasi dira

Ohi bezala, Pleka trinketeko Dutournier familiak bere mus eta pala txapelketa antolatzen du. Hirugarren aldiko mus txapelketa egin da, hil hunen 17an hasiz eta hiru ortziralez jokatu beharrek dira partidak. Kartak utziz muslari aintzek ere beren izena eman dute pala lehiaketan. Txapelgoa abenduaren lehenean, larunbatarekin hasi beharra da, oraindik garaiez da izenak emateko Trinketera deituz (05 59542206). Izen emateak 160 libralio du.

Familia biziaren bidean Kultur Hamabortzaldia

Aurtengo Kultur Hamabortzaldia hil hunen 21etik abenduaren 3ra burutuko da Zirimolan taldeak antolatuturik. Oroitaraziko dugu antolatzaileak iazko berak direla, erran nahi baita: Sarako Gaztetxea, Azkaingo Altxa Lili, Etxalarko Altxata eta Berako Gure Txokoa.

Joan den urteko gaia



Mikel Dalbret herriko margolariaren lanen erakusketa zabalik izanen da Biarritzeko Santa Eukeniako elizapean.

Argazkia: Zazpika

«Etxeak eta Bizitzak» baldin bazen, aurtenhari beretik tiraka, hau da, etxearen barnerat sartuz, familia izanen da gaia.

«Familia biziaren bidean» hamabortzaldia eskutik gaur egun osatzen diren famili molde desberdinak aipatuko dira, lehengo familia tradizionalaren eredua nahiko hautsia baita. Biziaren ardatz diren lana, sexua eta hainbertze aipatzen den komunikazioa ere jorratuko dira Zirimolan taldeak antolatutako ekitaldietan. Herrian antolatu diren ekitaldiak hauek izanen dira:

Azaroaren 21ean, as-

teartea, arratseko 8ak terdietan Herriko Etxean mahaingurua eginen da, «Lana eta familia» gaiari buruz.

Abenduaren 2an, arratseko 9etan bertso kantu afaria Lastiry jatetxean. Xehetasun gehiago atxemanen dituzue aldizkari hunen kultur orritan.

Mikel Dalbret Sarako margolariaren erakusketa Biarritzen

Hilabete batez, heldu den azaroaren 18tik abenduaren 17a arte, Mikel Dalbret Sarako margolariaren erakusketa ikusgai izanen da

Biarritzeko Santa Eukeniako elizapean, arratsaldeko 3etarik 7ak arte.

Mikelen lana Euskal Herriko herri kulturaren oinarritzen da (ihauteriak, mitologia, erlijioa) eta Biarritzen 50 bat margo ikusten ahalko dira. Horretaz gain, abenduaren 1ean, ortziralearekin, arratseko 8etatik goiti «Artearen mintzoa» gauraldia antolatua izanen da erakusketaren inguruan, dantza, kantu eta bertulariekin eta sartzea kittorik izanen da.

Bertalde, Gatzuzain argitaletxeak, Mikel Dalbret-i buruzko liburua aterako du laster.


flash

❖ Sasoina bururatu da usotegietan

Larrazkena aintzina joaten ari zaigu eta jadanik sasoina bururatu da Sarako usotegietan. Erran gabe doa, aurtentzatek ez dutela batera denbora alde izan. Alabainan, euriaren eta haizearengatik, egun frangotan sareen ezartzea ezinezkoa izan da, eta beraz denboraldi guzian lau dozena uso baizik ez dira atxemanak izan. Dena dela, urte txaragoak gertatu direla diote! Ikusiko ondokoak zer emanen duen...

❖ Herriko Etxeko edantegia

etsia izanen da azilaren 10etik abenduaren 5a arte. Honenbertzez, TTIPITTAPA aldizkaria Herriko Etxeko Edantegian hartzen dutenek Lastiry jatetxean atxeman behar dute hilabete hontan.



SAIOA

ILEAPAINDEGI

MISTOA

IBARDINen

Benta Biok-en,
Benta Mirentxuren
ondoan

☎ 0034948630424

SENPERE



40 urte betetzen dutenen afaria

Gan den urriaren 7an Arozena ostatuan elgarrekin afaldu zuten aurten berrogoi urte betetzen dutenek. Zorionak!

Argazkiak: Studio de la Nivelle

Eurotech lantegiak enpleguak sortuko lituzke Lizardian

«Presoen egoera salatzeko» su eman omen zitzaion postetxeari

FRANCK DOLOSOR

Eurotech saltegiak apaintzen dituen enpresak lantoki berria idekiko du heldu den apirilaren Lizardia lan-zeilaian Delphiak utzi zuen egoitzan. 7.500 metra karratu baliatuko ditu bere lan eremua lau aldira haunditzeko. Hastapenean ez bada lan berriak sortzen ere, hori zuzendariak TTPI-TTAPari aitortu diote 2001 eta 2002 urteetan nahi lituzketela lanpostuak sortu Senperen.

Postetxeari su eman zioten

Urriaren 21 eta 22a arteko gauean ezezagun batzuek su eman zioten postetxeari. Atentatua Iparretarrak taldearen gain eman bazuen lehenik polizia, ezeza-

gun batek erreibindikatu zuen atentatua. Bere hitzetan «presoen sufrimendua eta polizia-errepresioa eta muntaiak» salatu nahi omen ziren.

Urriaren 3an besta eder eta jendetsua ospatu zen Ibarrunen Bonet hotelaren 100 urtean karietarat.



flash

Piano ikastaldiak

Asteazken arratsaldetan piano ikastaldiak ematen dituzte elkartetxean. Xehetasunak deituz: 0559266298.

Yoga klaseak

larunbatetan goizeko 10etan ematen dira yoga klaseak. Telefona: 0559316275.

Herri liburutegia

astelehenetan idekia da arratsaldeko 4,30ak eta 6ak artean eta asteazken eta larunbat goizetan 10,30ak eta eguerdi artean.

Asteazkenetako atelierrak

Bortz eta hamabi urte arteko gazteentzat «asteazkenetako atelierrak» idekitzen dituzte Emak-hor gelan. Aste oroz esku lan frango egiten dituzte haurrek.

Haurrendako esku-baloia

Sei eta bederatzi urte arteko esku-baloia zaleek entrenamenduak dituzte larunbatetan, 2ak eta 3,30ak artean Gantxikin. Xehetasunak deituz: 0559541563 edo 0559541680.

Kutxa Kutxa Kutxa

Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa

Kidetzak berri bat!

7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingoa Lepoa
☎ 948 631209

EZKONTZAK

Juan Jose Retegi Telletxea eta **Maria Pilar Fernandez Larrea**, Eratsun eta Leitzakoa, irailaren 30ean.
Florantxa Benac Barberena eta **Bartolo Agerralde Mendiburu**, Zugarramurdikoak, azaroaren 4an.

JAIO TZAK

Oier Goikoetxea Sagastibeltza, Leitzakoa, urriaren 25ean.
Joseba Escudero Navascues, Leitzakoa, urriaren 20ean.
Fátima Zzahara El Haou, Narbartekoa, urriaren 27an.
Onintza Zapiain Abuin, Berakoa, urriaren 23an.
Christian Rios Jimenez, Berakoa, urriaren 14an.
Ieray Taberna Fagoaga, Berakoa, urriaren 25ean.
Oihane Alli, Sarakoa, urriaren 24an.
Nicolas Zunda, Sarakoa, urriaren 26an.
Iker Aleman Azkarraga, Azpilkuetakoa, urriaren 21ean.
Kaiet Jaunena Frias, Elizondokoa, urriaren 25ean.
Iratxe Iturriria Barrenetxe, Azpilkuetakoa, urriaren 31n.
Paula Nuñez Baylon, Elizondokoa, azaroaren 3an.

HERIOTZAK

Gumersindo Gorosabel Azkarate, Narbartekoa, urriaren 15ean, 68 urte.
Pedro Arroyuelo Serna, Iturengoa, urriaren 24an, 73 urte.
Natividad Ariztegi Ziganda, Iturengoa, azaroaren 5ean, 95 urte.
Juana Iriarte Leizeaga, Lesakakoa, azaroaren 6an, 88 urte.
Ibon Andoni Aguilar Lazkanotegi, Berakoa, urriaren 30ean, urte 1.
Valentín Gómez Lama, Elizondon, urriaren 24an, 84 urte.
José Otegi Estebekorena, Urdazubikoa, azaroaren 4an, 74 urte.
Elena Dagerre Irigoien, Etxalarkoa, azaroaren 7an, 75 urte.
Luis Telletxea Aizega, Saldiaskoa, azaroaren 8an, 50 urte.



Natividad ARIZTEGI ZIGANDA

Frantzisko Iñigoren alarguna

Azaroaren 5ean hil zen Iturenen,
 95 urte zituela.

Patxi Iñigo lankideak eta bere familiak zoritxarreko egun hauetan izandako saminarekin bat egiten dugu TTIPI-TTAPA FUNDAZIOKO langileok.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.



**Bidali TTIPI-TTAPA
 herritik kanpo
 bizi diren lagun
 edo familiakoei**

**Bakar bakarrik
 bidaltze gastuak
 ordaindu behar dira.
 Eskatu informazioa.**

(+34) 948 631188

Beti Gaztek irabazi du Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa

- Areso izan zen bigarren eta Txantrea hirugarren
- 640 kiloko txapelketan murgilduak daude orain hiru taldeak

AITOR AROTZENA

Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa Domisaindu egunean jokatu zen Atarrabian, saio bakarrean. Lesakako Beti Gazte suertatu zen txapeldun, Areso eta Txantrearen aitzinetik, tiraldi guziak irabazi ondotik. Honako zortzikote hau aritu zen lesakarren izenean: Agortxeberriko Karmelo eta Jose Angel Mitxelena; Vicente Igarzabal, Oskar Telletxea igantziarra, Makatzeneko Igor eta Joxe Telletxea, Alejandro Sarobe eta Iñaki Igoa. Agustin Zubietak bete zuen entrenatzaile lana eta Joxe Antonio Mujika aritu zen botillero gisara.

Beti Gazte, Areso eta Txantrea 640 kiloko txapelketan murgilduak daude orain. Azaroaren 11n Sunbilla eginda-



Joan den urteko bidetik hasi dira lesakarrak Nafarroako txapelketan, baina iazko txapel sorta eskuratzea ez da errexa izanen.

Argazkia: Jagoba Manterola

ko lehen saioaren ondotik, azaroaren 19an Burlatan eta azaroaren 25ean Latasan egingen dituzte hurrengoak. Pisu ttikietan Imotzeko taldea gehituko zaie. 600 kilokoan hiru saio iza-

nen dituzte: abenduaren 2an Txantrean, abenduaren 6an oraindik zehaztu gabeko herri batean eta abenduaren 8an Leitzako pilotalekuan. 560 kiloko txapelketa, azkenik, abenduaren

16an Arbizun jokatu den saio bakarrean egingen da.

Mutilez gain, Sakana, Atarrabia-Txantrea, Imotz eta Burlatako neskak ere ari dira lehian, 480 eta 520 kilotan.



❖ Rafa Maritxalar

korrikalari lesakarrak irabazi zuen azaroaren 7an Irun-go Hiria Krosaren hogeita hamabigarren edizioa. Barakaldo kirol taldearen izenean parte hartu zuen Maritxalarrek eta nahiko aisa nagusitu zen kross federatuaren denboraldiko lehendabiziko proban.

❖ Mitxel Aginaga

Narbarteko kirolariak ez zuen zorte handirik izan azaroaren 5ean Calatayuden jokaturako Espainiako Mendi Duatloi txapelketan. Bizikletan zoaienengan zulatua izan zuen eta ez zuen proba akitzerik izan. Urriaren 22an laugarren izan zen Jacan Aragoiko Kopan eta urriaren 29an, Errioxan burututako Green Cupeko proban zortzigarren izan zen, 95 parte hartzaileen artean.

Herri Kirol Federazioak azaroaren 26an hautatuko ditu batzarkide berriak

- Lehendakaria abenduaren 16an aukeratuko da

Nafarroako Herri Kirol Federaziorako hauteskunde prozesua zabalik dago azaroaren 4tik azaroaren 19a bitarte. Batzarkideak hautatzeko eguna azaroaren 26a izanen da. Guzira hogeita hamar batzarkide hautatzen dira: sei klubetako or-

dezkarri gisara, hemezortzi kirolariak ordezkatzuz, hiru tekniko edo entrenatzaile eta hiru epaileen izenean. 30 batzarkide hauek presidentea aukeratuko dute abenduaren 16an. Lehendakariak lau urterako hartuko du kargua. Azkeneko zortzi

urtetan Arraiozen bizi den Joxelu Retegi igantziarra da Nafarroako Herri Kirol Federazioaren lehendakaria.

Nafarroako Herri Kirol Federazioak lehendakari berria hautatuko du abenduaren 16an.



Peñagarikano irabazi zuen Euskal Herriko aizkolari txapelketa

- Bigarren izan zen Floren Nazabali 9 segundu atera zizkion
- Mindegia laugarren, Larretxea bosgarren eta Etxeberria seigarren

TTIPI-TTAPA

Ustegabekoa izan zen urriaren 29an Oion-en jokaturako Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finalean, Beizamako Joxemiel Peñagarikano nagusitu baitzen, 35 minutu eta 27 segunduko denborarekin. Bigarren postuan ere ustegabekoa izan zen, Etxarri Aranazko Floren Nazabal izan baitzen azpitxapeldun, Peñagarikanotik bederatzi segundu eskasetera. Azkeneko bi urteetako txapelduna eta aurteneren ere faborito nagusia zen Joxemari Olasagasti igelidoarra ez zen hain fin ibili eta denbora dexente galdu zuen. Hirugarren izan zen. Mikel Mindegia izan zen laugarrena, 38 minutu eta 54 segunduko denborarekin. Mindegia



Peñagarikanok Nazabalek baino 9segundu guttiago behar izan zituen.

gustora agertu zen berak egindako lanarekin: «Adin honetan ez dago gehiago eskatzerik». Baina aurtengoa azken txapelketa izan zitekeela ere adierazi zuen. «Seguruenik hau izango da nire azken txapelketa. Urte asko daramatzat, eta ezin dabeti hor ibili. Besteek ere ikus dezatela hau zer den» zioen zubiatarak. Donato Larretxea aranzatarra bosgarrena izan zen, 41 minutu eta 21 segunduko denborarekin. Hasi, ongi hasi zen, baina azken egunetan izandako sukarrak ez zion nahi bezalako lana egiten utzi. Felix Etxeberria sunbildarra izan zen seigarrena, 47 minutu eta 37 segunduko denborarekin.

kin. Hasi, ongi hasi zen, baina azken egunetan izandako sukarrak ez zion nahi bezalako lana egiten utzi. Felix Etxeberria sunbildarra izan zen seigarrena, 47 minutu eta 37 segunduko denborarekin.

kin. Hasi, ongi hasi zen, baina azken egunetan izandako sukarrak ez zion nahi bezalako lana egiten utzi. Felix Etxeberria sunbildarra izan zen seigarrena, 47 minutu eta 37 segunduko denborarekin.

	54	54	60	60	72	72	72	72	60	60	54	54
1. PEÑAGARIKANO	1'27"	3'20"	5'50"	8'25"	12'07"	16'31"	20'45"	25'48"	28'29"	31'04"	33'00"	35'27"
2. NAZABAL	1'20"	3'05"	5'40"	8'01"	12'10"	16'29"	20'44"	25'40"	28'42"	31'21"	33'25"	35'36"
3. OLASAGASTI	1'00"	2'37"	5'15"	7'44"	12'24"	17'00"	21'17"	26'48"	29'48"	33'04"	35'24"	38'12"
4. MINDEGIA	1'16"	3'05"	5'29"	8'13"	12'33"	17'06"	21'58"	27'52"	30'57"	33'54"	36'13"	38'54"
5. LARRETXEA	1'11"	3'11"	6'02"	8'56"	13'39"	18'54"	24'33"	30'23"	33'27"	36'29"	39'02"	41'21"
6. ETXEBERRIA	1'23"	3'23"	6'56"	10'02"	15'42"	21'48"	27'53"	35'04"	38'35"	42'04"	44'50"	47'37"

Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala
Doneztebeko Feria egunean

Euskal Herrikoaren ondotik, Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren txanda izan da. Finala, azaroaren 17an, feria egunean jokaturako da Doneztebeko udal pilotalekuan, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera. Bertan izanen dira Mikel Mindegia zubiatarra, Donato Larretxea aranzatarra, Felix Etxeberria sunbildarra, Etxarri Aranazko Floren Nazabal eta Olagueko Jesus Senosiain. Lau kanardiko, lau 60 ontzako eta bi oinbikomoztu beharko dituzte.

Joan den urtean Mikel Mindegia izan zen txapeldun. Aurteneren ere faborito argirik gabeko lehia izan da. Nazabalek sasoi bikaina erakutsi zuen Euskal Herriko txapelketan. Donato Larretxea ez zen hain fin ibili, baina uda polita egin du eta Mindegia berak txapelari eutsi nahi izan dio. Apos-tulariendako besta!

Noaingo Celestino Aranguren korrikalariak irabazi zuen Lizuniagako XIX. Igoera Beran

Celestino Aranguren irabazi zuen urriaren 29an Beran burututako Lizuniagako XIX. Igoera. Noaingo korrikalariak 16 minutu eta 54 segundu behar izan zituen ibilbidea burutzeko. 59 segundura Hendaiaiko Jean Paul Modet sartu zen. Ramuntxo Lamothe, aurtengoan Kontrabandisten Lasterketa eta Agerrako Herri Krosa irabaziak zituen saratarrak lortu zuen hirugarren postua, 17 minutu eta 58 segundurekin.

Emakumeei dagokienez, Maika

Ariztegi ittundarra izan zen azkarrena, 21 minutu terditan akitu baitzuen lasterketa. Bere ondotik Marisol Martinez beratarra (22'03"), Ainhoa Irazoki beratarra, (27'34"), Adela Arlegi lesakarra eta Belen Guerra igantziarra sartu ziren.

Beteranoetan Batista Telletxea beratarra izan zen onena (19'11"), Manolo Otero doneztebarraren eta Ricardo Toro irundarraren aitzinetik.

Juniorren artean Mikel Jaurena beratarra izan zen azkarrena (23'09").



Lamothe, Aranguren eta Modet, Lizuniagako igoeraren podiuma.

Argazkia: Legarra

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

DONEZTEBE

► Azaroaren 17an

Informazio gehiago
gehigarrian.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► Azaroaren 22a ar- tio

Elisabet Mendia
eta Elisa Muñozen era-
kusketak, arratsaldeko
6,30etatik 9etara
Arizkunenea Kultur
Etxean.

► **Chillida-leku** ikuste-
ko ateraldia, abendu-
aren 2an. Prezioa:
2.600 pta. Izena ema-
teko Kultur Etxean.

UDAZKENEKO BIRA

ZUGARRAMURDI

► Azaroaren 25ean

Iruñeko San Fermin ko-
ralak Zugarramurdiko
elizan kantatuko du
arratsaldeko 7,30etan.

MINTZALDIAK

BERA

► Azaroaren 15, 22 eta 29an eta aben- duaren 13 eta 20an

Marta Etxaide psikolo-
goa arazo onkologiko-
ak dituzten lagunentzat
edo hauen senitarteko-
entzat solastuko da. be-
rako kontsultan, arra-
tsaldeko 6,30etan.
Boritzirietako Lagunen
Taldeak antolatzen du.

ZIRIMOLAN

SARA, ETXALAR...

► Azaroaren 21etik abenduaren 3ra

Mintzaldi, mahainguru,
kontzertu, bide emanal-
di, bertso-kantu afari...
denetarik izanen da
15 egun hoietan.
Informazio gehiago
8. orrialdean.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 160-164 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 115-120 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanak
Extra555-570
1.koa545-555
2.koa495-505
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanak
Extra600-610
1.koa575-595
2.koa520-540
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg.
kanalean dauzkaten idixko eta 200-
250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
- **Nabarrak:** urruxak 25.000-29.000
eta idixkoak 31.000-36.000 Pta.
- **Mestizoak:** urruxak 42.000-48.000
eta idixkoak 49.000-59.000 Pta.
- **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg.
Kanak. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg.
Kanak.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA




Asteartero, laburmetraiak

Astearte iluntzetan, informatiboaren ondotik, Bidasako Laburmetraien Zinemaldian parte hartu zuten filme laburrak botako dira ttipi-ttapa telebistan. Azaroaren 14an "Lana" izeneko laburmetraia eman zen, eta asteazkenean eguerdiko 1etan eta arratsaldeko 5etan errepikapena ikusteko aukera izanen da. Filme labur hau Igor Legarreta eta Emilio Perez bilbotarrena da, eta hiltzaile erretiratu baten istorioa kontatzen du. Garai bateko nagusien deia hartzen duenean bere lana egitea eragozten dion eritasun larri bat harrapatzen du.

Heldu den asteen, bertzelde, "Ekipaje irekia" filmea egonen da ikusgai astearte arratsean. Javier Rebollo zuzen-
dari gaztearen lan hau saritua izan zen aurtengo zine-
maldian. Zoriak, maitasuna
eta heriotza maleta baten ba-
rrenean erakusten dizkio la-
pur bati. Filme dramatiko
honetan jendeak gauzei zer
nolako zentzua ematen dien
agertzen da modu bereizi ba-
tean.



Liburuak



«Mugarri estaliak»

Castillo SUAREZ

SUSA

Castillo Suarez altsasuarra due-
la hilabete batzuk Bortzirietako
Euskara Teknikari gisa ari da la-
nean. Idazle bezala bertzelako
lanak eginak ditu, baita hainbat
sari irabaziak ere, 1999 eta 2000
urteetan Iruñeko udalak eman-
dakoa, edo Arabako Foru Aldun-
diaren Ernestina Chompourcin
lehiaketan eskuratutako lehen
postua.
"Mugarri estaliak" olerki liburua
da, beren artean agiriko erlazio-

rik ez duten 60 poesia dira, esal-
di motzekin osatuak eta hizkun-
tza zailtasun berezirik gabekoak.
Erran liteke, "Mugarri estaliak"
tarteko bidea dela olerkigintza
eta prosaren artean:
"Eta deprimitu guztien en-
baxadore/
izendatuko dut neure burua/
gomuta gozoen itsasoaz bus-
titako lurraldeetan/
bizi direnen eskubideak/
errespetatuak izan daitezen."

Nola jokatu dibortzio baten aitzinean



Haurrak ez dira ergelak, eta badakite zerbait gertatzen ari dela.

Gurasoen banaketa aski trantze larria da seme-alabentzat, horretaz ez da dudarik, baina eurentzat oraindik zailagoa da etengabeko tentsio egoera batean segitzea. Beraz, egoera jasangaitza bihurtzen denean denentzat irtenbiderik sanoena bereizketa da.

Dibortzioa gertatu eta lehen egunetan, haurrek ez dute ulertzen aita eta ama ez direla gehiago elkarrekin biziko, eta duten adinaren arabera arras modu diferentean erantzun dezakete: errudun sentitu daitezke, hagitz gaixto edo hagitz obediente bihurtu daitezke, tiki-tikiak zireneko jokabideak berreskuratzea ere gerta daiteke, adibidez ohatzean pixa egitea. Jokabide hauek ez dira anormalak, eta egoera normalizatzen delarik desatutuko dira.

Dibortzioaren aitzinean haurrek sobera ez sufritzeko kontseiluak:

- Haurrak ez dira ergelak eta badakite zerbait gertatzen

Egoera honen errudunak beraiek ez direla argi eta garbi jakin behar dute seme-alabek.

ari dela, horregatik hasiera-hasieratik normaltasunez eta argi eta garbi informatzea komeni da.

- Argi utzi behar zaio nahiz eta aita eta ama elkarrekin ez bizi, bera berdin maitatzen segituko dutela biek.

- Egoera honen errudunak beraiek ez direla jakin behar dute argi eta garbi.

- Inoiz ez zaie aukeratzen utzi behar bietako zeinekin bizi nahi duten. Hori gurasok erabaki behar dute.

- Ez utzi denek elkarrekin gauzak egiteari. Tarteka pasatu edo zinera joatea bezalako planak egin.

- Saiatu haurren bizitzan ahalik eta aldaketa guttien egiten. Eskola berdinerara joaten segi dezala eta lagun berdinekin jostatzen.

- Inoiz ez da euren aitzinean orain arte bikote izan duzun pertsonaz gaizki esaka ari behar, ez atzendu pertsona horrek bere aita edo ama izaten segitzen duela.

Liburu interesgarri bat

Hauek dira kontuan izateko aholku tiki batzuk, baina gehiago jakin nahi baduzue Luis Rojas Marcosen liburu interesgarri bat dago gai honi buruz gehiago jakin nahi baduzue: "La pareja rota", Espasa Hoy argitaletxearena.

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEMA

LEITZA

- **Azaroaren 17an eta 19an** «Gladiator».
- **Azaroaren 24 eta 26an** «Cosi ridevano».
- **Abenduaren 1 eta 3an** «La virgen de los sicarios».

KONTZERTUAK

LEITZA

- **Azaroaren 24an** Ukrainako «Galizia» folk taldearen emanaldia Torrean, gaueko 11etan.

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

- **Azaroaren 16an** Aiako Harriara joan dena Baziango Mendigoizaleak.
- **Azaroaren 26an** Bertizetik Legasaraingo joan dena oinez.

IRUN

- **Azaroaren 26an** Urruñatik Oartzunera ibilaldia, AHTren aurka asanbladak antolatuta. Apuntatzeko: Irungo Ixkiña ostatuan. Irteera: Goizeko 10-etan Urruñako plazan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnoa. deitu behar da

- **Azaroaren 13tik 19ra** Bera, Narbarte, Irurita eta Goizueta.
- **Azaroaren 20tik 26ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.
- **Azaroaren 27tik abenduaren 3ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

DISKAK



«Homologao»

BUITRAKER

GOR DISKAK

Bigarren diskoa du Iruñeko taldeak, eta aitzinetik atera zuten "Lurrin makina" diskoko elektrizitate eta energia berdina biltzen dute lan berri honekin. Diskoko 10 abestieta gehienak euskaraz kantatzen dituzte, "No hay respeto" eta diskoari izenburua ematen dion "Homologao" kantua eziz. Abestien letrak jendearen aniztasunaz solasten direla erran daiteke, baina baita ere,

aldiberean, moldean harrapatuta gelditzeko arriskuaz. Abesti hoietaz gain, 3 abestiko CD osagarri bat heldu da diskoarekin. Bertan 3 birnahasketak aditzen ahal dira, erritmo elektronikoak erabiliz osatuak. Uda hondar aldera grabatu dute diskoa Sonido XXI estudioetan eta Javi eta Juanan San Martín izan dira soinu teknikariak. Diseinu grafikoa berriz, Zonga Gráficas egin du.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

Leitzako herrian 7
pisu eta 5 bajera
salgai.

☎ 649 476 615 • 948 510 167

LEGASA. Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, bainugela eta egongela. ☎ 678 588 929.

LEITZA. Pisua salgai, kalerakzioarekin. Sukaldea eta jangela montatuak. 14.000.000 pta. ☎ 948 510 169.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS



- Eskaera handia
dagoenez,
bordak, baserriak,
lur-eremuak,
bajera etab.
erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN EMAN

BERA. Apartamentu berria errentan emateko Agerra auzoan, garajea eta trasteroarekin. ☎ 948 631 033 (20etatik 22etara).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Beran pisu bat konpartituko **persona bat** behar du. ☎ 948 631 222 (Inma).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

GAZTELU-DONAMARIA. Lursail eraikigarria salgai. ☎ 948 211 441 (gauzez).

LANA

301 ESKAINTZAK

Bortzirietako enpresa batek mutil gazte bat behar du **igeltsero laguntzaile** aritzeko. ☎ 619 829 289.

Iruñean **neska bat** behar da interna gisa lan egiteko. ☎ 948 152 266.

Donostian **neska bat** behar da interna moduan lan egiteko. ☎ 943 214 004.

Bi neska behar dira jate-txe batean zerbitzari gisa egun erdiz aritzeko. ☎ 943 623 130.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Bultaco 250 motoa salgai. Egoera onean, matrikultatua eta iat (itv) eguneratua. ☎ 948 627 539 (Bixente).

Traktorea salgai, Same Explorer 70 apala, bigarren eskuko. ☎ 943 490 619 (Xanti).

Nissan Patrol Top-Line salgai

Turboa, Ilantak
eta defentsa.
☎ 670 25 22 02

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra GSI, C-15 D, Ibiza D,
Super 5, Terrano TD,
Patrol 6 zilindro.

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

ANIMALIAK

601 OPARITZEKO

Bizakurkume oparituko nituzke. ☎ 948 630 788.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Basurde ehiziko Grifon **zakur emea** salgai. ☎ 948 387 098.



ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA !

Izen - deitura
Helbidea
Herrialdea

- ☐ 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- ☐ pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoko Botzari

Gure kontu korrentearen ezaugarriak : Kutxa
2101 0045 91 001092747.3

Xiberoko eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE

Behi suizoa salgai, ernari dagoena. ☎ 948 637 378.

Bederatzi ardiren subentzioa salgai. ☎ 948 637 468.

Behi-esne kuota, 82.097 kilokoa salgai. ☎ 948 635 182.

Chou-chou eta malamute zakurkume zoragarriak salgai. ☎ 639 257 805.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Hergom markako **sukalde kalefaktorea** erosiko nuke. ☎ 619 365 297.

320 litroko **esne hozteko tankea** salgai, Japi markakoa. ☎ 948 610 654 (Bitoriano).

Egurrezko **sukalde kalefaktorea** salgai. Arras egoera onean dago. ☎ 609 744 757.

Bigarren eskuko De Dietrich **sukalde ekonomikoa** salgai Beran. Egoera onean dago. ☎ 654 729 990.

DENETARIK

702 BERTZELAKOAK

Eri edo adintuei uzteko gurpildun aulkiak, ohatze artikulatuak, koltxoak, gruak, etabar behar ditu Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Azken urte hauetan aunitz izan dira material hori eskatu eta era-

bili dutenak. Horregatik, zure etxeetan horrelako materiala baldin baduzue eta ez baduzue erabiltzen, mesedez deitu eta guk bilduko dugu, gero behar duten eriek erabil ahal izateko. ☎ 948 635 036.

Kiloak soberan?
Diru estra behar duzu?

Lan egin
dezagun elkarrekin,
egun osoan edo orduka.
Nazioarteko enpresa.
☎ 943 635 173 - 629 373 364

EDAN ETA ARINDU!

Zure pisua kontrolatua
gustoko janak baztertu gabe
☎ 948 13 11 36

HARREMANAK

801 AGURRAK

Zorionak **Igantzi**ko Maiderri azaroaren 14an urteak bete dituelakoz. Ea txanpainera gonbidatzen duzun.

Egun on Tere, Saratik agur bero-bero bat. Hemen gaude denbora bitixi batekin, euria, haizea... Zure aldetik izan azkar, laster gureganatuko zara. Zurekin gaude ttantta. Ez adiorik. Lasterarte. Musuak. Mari-do eta etxeokak.



Mitsubishi Montero
2.8 Turbo Diesel Intercooler

125 cv, NA-BD, berriz matrikulatua, 95 urtekoa, 83.660 km. Xuria, 5 ate, haize egokitu bikoitza, leiho elektrikoak 4 ateetan, ABS, ispilu elektrikoak, itxiera zentralizatua, aluminiozko llantak, alboko estriberak, erremolkearentzako lotura, irratia, etab. Garantia.

Tel. 608 77 80 23
BERA

2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora





URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilo igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Unai eta Garazi oreretarrek azaroaren 7 eta 25ean urteak bete dituzte. Zuen gaiztakerietan ikusiko dugu elkar. Zorionak lagunak, eta muxu handi bana Amona Zahararren partetik.



Maite Legasa Taberna eta **Andoni Taberna Telletxea** igantziarrek 4 eta 8 urte beteko dituzte azaroaren 10 eta 17an. Zorionak, aunitz urtez, igantziko gaixtoenentzat. Muxu handi bat zuen familien partetik, espeziailki losu eta Xabieren partetik.



Jon Arambillet Galzagorri sunbildarrak 3 urte bete ditu azaroaren 4an. Zorionak familiaren partetik.



Felix Korta beratarrek 83 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak zure biloben partetik.



Julen Aranburu Mitxelenak 4 urte egin ditu azaroaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Mikel Cenoz Verdu urdazubiarrak 9 urte bete ditu azaroaren 12an. Zorionak denen partetik.



Andoni Cenoz Verdu urdazubiarrak 3 urte bete ditu azaroaren 2an. Zorionak denen partetik.



Josetxo Telletxea Urrutia arraioztarrak urteak bete ditu azaroaren 8an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Jone ilobaren partetik.



Jon Migeltorena Leiza lesakarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 2an. Zorionak denen partetik.



Jon Jubera Mariezkurrena doneztebarrak azaroaren 27an 9 urte beteko ditu. Zorionak ama, aita eta Josuren partetik.



Zigako Joxeanen urtebetetzea da azaroaren 23an. Eskolako guztien partetik, aunitz urtez.



Andik 2 urte bete ditu azaroaren 16an. Zorionak eta muxu handi bat Vanesa, atautxi, amatxi, guraso eta osabaren partetik.




Joxe amaiurra eta **Feli oiztarrak** zilarrezko etzeiak beteko dituzte. Orain dela 25 urte erabaki zuten elkar hartzea Oitzen eta orduraz geroztik Irunen bizi dira, elkarrekin pozak eta min-penak eramanez. Zuen seme-alaba eta Euri, amatxi Bittori, anai-arreba guziki, ilobak, lehengusuak, adixkideak, lankideak...



Ahielen Urri-za Otxoteko lesakarrak azaroaren 20an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Eneko Esparza Chuec azaroaren 23an 4 urte beteko ditu. Zorionak Iratxe, Fermina, Luzio, Mabi eta gurasoen partetik.



Xuban Etxegia Etxebeste sunbildarrak azaroaren 30ean 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guziren partetik. Maite zaitugu aunitz.



Mattin Gonzalez Uhal lesakarrak 13 urte bete ditu azaroaren 14an. Zorionak!!!



Larraitz Gonzalez Uhal lesakarrak 10 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak!!!



Unai Madariaga Iribarren urroztarrak 9 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



Galizian bizi den Aitor Tato Iparragirrek lau urte beteko ditu. Zorionak guraso eta Luis eta Josuneraren partetik. Muxu bat.



Nerea Bertiz Etxarte igantziarrek 9 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak igantziko familiaren partetik eta muxu handi bat.



Nickolas Berry Etxarte Modesto-koa (Kalifornia) abenduaren 19an beteko ditu 2 urte. Zorionak igantziko familiaren partetik..



Anthony Etxarte Perez Dixon - Kalifornia, urteak beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak igantziko familiaren partetik..



Xabier Etxarte Mikelestoren a exalartarrak azaroaren 19an 11 urte beteko ditu. Zorionak igantziko familiaren partetik..



Maitetxu beratarrek 13 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Zorionak familia guziren partetik, baita Motx eta Bugiren partetik ere.



Bittor "Xukalde" beratarrek urteak bete ditu azaroaren 18an. Zorionak eta aunitz urtez. Aupa Beti Gazte!



Beñat Mitxelena Sagasti-beltza beratarrek 4 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak att, ama eta Olatzen partetik.



Judith Etxeberria Telletxea arantzarrak 2 urte bete ditu azaroaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat gure printzesitari.



Ane Larrainzar Ubiria txiletarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 22an. Aunitz urtez eta lau muxu handi gure printzesari. Familia.

Norbait zoriontzeko, bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTPI-TTAPako helbidera:

TTPI-TTAPA ALDIZKARIA
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA



KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak



Fagor
elektrogailuak,
5 urteko
garantia



AMAIUR

Doneztebeko sarreran ☎ 948 450 400

Prezioa zuk jarri, sukaldea guk jarriko dizugu

MUE LES
Tlltx

Rosa Seminario z/g

☎ 948 450 258

DONEZTEBE



TABLE RONDE pied central,
5 allonges, chaises assorties (L. 140 cm)
prix 1200 €

Marixus

elektrogailuak

Eneterreaga anai-arrebak

Zarandia, 3 • **Lesaka** • 948 637 070



**ELEKTROGAILUEN SALMENTA ETA
BERTAKO ZERBITZU TEKNIKOA**



**ANTENAK ETA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**

ESKAINTZA BEREZIAK

Balay labadora (6 kilo)	75.000 pta
Musika ekipoa (5 CD eta irratia)	24.800 pta
Labea eta bitrozeramika plaka	62.000 ptatik
Sanyo telebista (25" multistandar, bi bozgorailu)	67.000 pta